

MOTIBAZIOAREN ONTZIA

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN
EUSKARAREKIKO JARRERAK LANTZEKO
PROPOSAMENA

*ebete hizkuntza-zerbitzuak
2013-2014 ikasturtea*

Aurkibidea:

1.- Aurkezpena

2.- Jarreretan eragiteko oinarriak

2.1.- Oinarri nagusiak

2.2.- Ikasleen ezaugarrietara egokitzea

2.3.- Progresioa

2.4.- Oinarriak eta edukiak lotzeko modua

2.5.- Erabileran eragiteko bideetako bat

3.- Progresioaren ideia

4.- Progresioaren taula

5.- Moduluen taula

6.- Ikasleen Euskara Batzordea

Eranskinak: Modulu bakoitzaren azalpen laburra

- | | | |
|----|----------|--|
| 1 | modulua: | Gaia kokatzea |
| 2 | modulua: | Erabilera I: irakasleen laguntza onartzea |
| 3 | modulua: | Erabilera II: instituturako erronka |
| 4 | modulua: | Identitatea I: hizkuntzen ekologia + euskara eta identitatea |
| 5 | modulua: | Erabilera III: ohitura aldaketan frogatzea |
| 6 | modulua: | Zailtasunak I: erraztasuna I |
| 7 | modulua: | Identitatea II: euskararekin harremana |
| 8 | modulua: | Erabilera IV: elkarrizketak ohiko egoeretan |
| 9 | modulua: | Zailtasunak II: erraztasuna II |
| 10 | modulua: | Identitatea III: euskara balio indartsuekin lotzea |
| 11 | modulua: | Identitatea IV: nolako izan nahi dut? |
| 12 | modulua: | Zailtasunak III: lotsa eta beldurra |
| 13 | modulua: | Identitatea V: aurreiritziak eta hizkuntzen funtzioak |
| 14 | modulua: | Erabilera V: lagunarterako tresnak |
| 15 | modulua: | Zailtasunak IV: erabileran eragiten duten faktoreak |
| 16 | modulua: | Identitatea VI: hori erakutsi nahi dut? |
| 17 | modulua: | Erabilera VI: paraxutistak |
| 18 | modulua: | Aurrera begira zer? |

1 – Sarrera

Institutuan ikasleen euskararen erabileraren gaia garatzeko pausoak ematen ari dira. Ikasleen euskararen erabilera ez da espero zitekeen edota nahi litzakeen modukoa.

Hori dela eta, bide berriak garatu nahi dira, eta hau da bide horietako bat: ikasleen euskararekiko jarreretan eragiteko dinamikak eta jarduerak diseinatzea, frogatzea, eta, eraginkorrak direla ikusten bada, institutuko jardunean txertatzea.

Proiektu honekin lortu nahi da institutuko ikasleek euskararen erabileraren inguruan hausnartzea eta bide horretatik euskara gero eta gehiago erabiltzeko jokabidea bultzatzea: gero eta egoera gehiagotan eta gero eta harreman gehiagotan.

DBH1etik Batxilergora bitarte hainbat dinamika eta jarduera proposatzen dira. Asmoa da jarduera guztiek elkarrekin lotura bat izatea eta DBH1etik Batxilergora progresio bat ere ematea: hausnarketetan, proposamenetan, edukietan...

Kontuan izan behar da, bestalde, jarreretan eragiteko proposatzen diren moduluek (dinamika eta jarduera sortak), oinarri batzuen arabera antolatzen direla. Hau da, zer landu nahi dugun jakinda errazagoa da dinamikak eta jarduerak lantzea eta horiek progresio batean kokatzea.

Hurrengo orrietan oinarriak eta progresioa aurkezten dira, eta modulu bakoitza eta jarduera bakoitzaren azalpenak ere aurkezten dira.

2– Jarreretan eragiteko oinarriak:

2.1 – Oinarri nagusiak:

Ikasleen euskararekiko jarrerak lantzerakoan, lau hauek izango dira oinarri nagusiak:

- Identitatea lantzea
- *Nolako euskalduna izan nahi dut?* galderari erantzutea
- Gero eta euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak aztertzea
- Gero eta euskara gehiago erabiltzeko jokabidea lantzea

Identitatea lantzea: Zer da gaur egun euskaldun izatea? Zein baliorekin lotzen da eta zergatik? Zein baliorekin lotzea nahi genuke? Euskaldun izateko modu bakarra al dago? Euskara jakitea–erabiltzeak nolako lotura du euskaldun izatearekin? Eta abar. Modu horretako gaiak aztertzea izango da abiapuntua ondorengo oinarriak landu ahal izateko.

Nolako euskalduna izan nahi dut? galderari erantzutea: euskaldun izateko hainbat modu baldin badaude, nik nolakoa izan nahi dut? Euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabili nahi al nuke? Gaur egun baino euskara gehiago erabili nahi al nuke? Euskaraz bizi nahi al nuke? Modu horretako galderak erantzutea landuko da, irakasleek esan beharrean nolakoak izan behar duten, beraiek iritsi behar dute dena delako ondorioetara eta irakasleek hausnarketak bideratu egingo dituzte.

Gero eta euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak aztertzea: Gero eta euskara gehiago erabili nahi baldin badut, non ditut zailtasunak horretarako? Kanpo faktoreak eta barne faktoreak aztertuko dira. Kanpo faktoretzat hartuko dira egoera soziolinguistikoa, lege aldetik babes falta, eta abar. Barne faktoretzat hartuko dira gaitasun aldetik mugak (gazte hizkeraren kasuan, adibidez) edota ohitura kontuak (gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura dugu...).

Gero eta euskara gehiago erabiltzeko jokabidea lantzea: Zailtasunak gainditzeko baliabideak eskaintzea eta jokabide aktiboak sustatzea bilatuko da. Zer eta nola egin dezaket zailtasunak gainditzeko eta euskara gero eta gehiago erabiltzeko?

2.2– Ikasleen ezaugarrietara egokitzea

Lau oinarri nagusi hauek jarduera zehatzetara ekartzerakoan, beste irizpide bat ere hartuko da kontuan: institutuko ikasleek euskararekin duten harremana. Ez dute harreman bera euskararekin institutuko gazteek edo testuinguru oso euskaldun bateko gazteek. Jarreraren aldetik landu beharrekoa baldintzatzen du euskararekin duten harreman horrek: bai abiapuntua, bai helburuak, baita garatu beharreko bideak ere.

Institutuko ikasleak euskara nahiko urrun eta nahiko gertu dutenen artean kokatzen dira. Ez da azterketa berezirik egin ondorio honetara iristeko. Ikasleen ezaugarriak baloratuz kokatu dira multzo horretan. Hori egin da lagungarria delako dinamikak zehazterako garaian. Zer esan nahi du horrek? Gehiengo batek euskara eskolatik soilik jasotzen du eta handik kanpo harreman ia guztiak gaztelaniaz dira: lagunartekoak, familiakoak, eskola orduz kanpoko jardueretakoak, telebista... Gazteen arteko harremanetan gaztelania nagusi da, eta, gainera, hizkuntza horretan erraztasun eta aberastasun handiagoa dute euskararekin alderatzen bada. Noski, badira etxetik euskara jasotzen dutenak eta hainbat harreman euskaraz dituzten ikasleak ere. Bestalde, euskararekin harremana handia ez izan arren, hainbat ikasleek beraien burua euskalduntzat hartzen dute eta euskaldun izate hori modu positiboan baloratzen dute. Horregatik ez ditugu ikasleak euskara nahiko urrun dutenen multzoan soilik kokatzen, euskararekiko identifikazio horrek euskara nahiko gertu dutenen multzora hurbiltzen ditu.

Multzo horretan kokatzen direnez, hau da garatu nahi den bidea:

- Identitatean gaia landu nahi dugu: hausnartzea nahi dugu euskaldun izatearen inguruan. Ez diegu guk esango nolakoak izan behar duten, helburua beraiek hausnartzea eta beraien ondorioetara iristea da. Euskaldun izateko modu asko daude, eta hizkuntza-jokabideek (euskararen erabilerak) ere zerikusizuzena izango du identitate horretan.
- Balioak: Zein balioekin lotzen dute euskara? Euskara balio indartsu eta modernoekin ere lotu dezaten ariketak eta dinamika egingo dira.
- Euskara gero eta gehiago erabiltzeko zailtasunak: barne faktoreak. Euskara gehiago erabiltzeko jarrera duten institutuko ikasleek zailtasunak dituzte horretarako, eta askotan barne faktoreak dira: erraztasuna, ohitura, lotsa, beldurra... Hori buruz hitz egingo da. Helburuak dira: batetik, ohartzeara

erabilera mugatzen duten faktore asko norberari dagozkionak direla, eta, bestetik, zailtasun horiei aurre egiteko gai ote garen ikustea.

- Euskara gero eta gehiago erabiltzeko pausoak ematea: euskara gero eta gehiago erabiltzeko pausoak frogak eta erronkak eitea, eta, bide horretatik, erabilera hori bizipen positiboekin lotzea. Besteak beste: lorpenekin, emozio positiboekin, norbere buruarekin gustura sentitzearekin...
- Erabilera aldetik institutuaren jarri diren gutxieneko helburuetara iristen laguntzea: jarreretan eragiteko jarduera eta dinamikek lagundu behar dute institutuaren gutxieneko helburuetara errazago iristen. Irakasleek ikasleei lagundu nahi diete euskara erabili dezaten, eta, ikasleen motibazioak zertxobait garatzen badira irakasleentzat errazagoa izan behar du helburu horietara iristea.

2.3- Progresioa:

Oinarrizko hausnarketatik hausnarketa garatuetara: Landuko diren moduluetan hausnarketa izango da oinarrietako bat: gaia kokatzea, horien inguruan hitz egitea, eta abar. Hausnarketa mailari DBH1etik Batxilergora progresio bat izatea egokia ikusten da, ikasleek ere garapena izaten baitute. Beraz, bilakaera bat emango da adinean aurrera egin ahala.

Gertuko egoeretatik beste hainbat egoeretara: Jarreretan eragiteko moduluen bidez jokabideetan eragitera ere iritsi nahi da. Hizkuntza ohituretan aldaketak ematea ez da erraza bide hau soilik erabilita, baina lortu nahi da ikasleek hainbat frogak eta ariketa egitea eta konturatzea gai direla beraien hizkuntza ohiturak garatzeko edo aldatzeko. Hasierako frogak eta hausnarketak gertuko harremanen ingurukoak izango dira (ikaskideak, institutuko egoerak...) eta urte urte garapen bat izango dute: ohiko harremanak, harreman puntualak, egoera berriak...

2.4– Oinarriak eta edukiak lotzeko modua

Jarreretan eragiteko plan zehatz eta osatu bat lortu nahi da, oinarri argiekin eta helburu zehatzekin. Proposamenak frogatu ondoren, bide egokia dela ikusten bada, institutuko jardunean txertatzeko modukoa ere izatea nahi da. Horregatik, proposamenak ezaugarri hauek ditu:


- DBH1etik Batxilergora, hiru hilero egingo diren moduluak prestatu dira: 2 saioko dinamika sortak.
- Modulu bakoitzak helburu zehatzak ditu eta aurretik zehaztutako oinarrien arabera prestatu dira: hizkuntzarekin harremana, progresioa...
- Moduluak independenteak dira: modulu bat ez egiteak ez du baldintzatzen proiektu osoa.

2.5– Erabileran eragiteko bideetako bat

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzean jarreretan eragiteko proposamen hau erabileran eragiteko beste proposamen batzuekin batera aurkeztu dela: erabileran zuzena eragiteko estrategiak eta tresnak eta eguneroko jardunean irakasleek erabiliko dituzten mezuak. Jarreretan eragiteko moduluak eraginkorragoak izango dira beste bi bideak ere behar bezala garatzen badira.

3- Progresioaren taula:

Jarreretatik jokabideetara



4- Progresioaren taula:

		Identitatea	Nolako euskalduna izan	Zailtasunak	Gero eta gehiago erabiltzea
DBH1	1 modulua	Proiektua kokatzea			
	2 modulua		Euskara erabiltzeko jarrera erakustea		Ikasleek irakasleon laguntza ulertzea eta onartzea
	3 modulua				Institutuan euskara gehiago erabiltzeko ahalegin bat egitea
DBH2	4 modulua	Gizarte eleanitz batean euskarak zer ematen ditugun hausnartzea			
	5 modulua		Euskara erabiltzeko jarrera erakustea	Ohiturak aldatzea zaila ote den aztertzea	Lagunartean euskara gehiago erabiltzeko ahalegin bat egitea
	6 modulua			Erraztasunak erabileran izan dezakeen eragina ikustea	
DBH3	7 modulua	Hizkuntzekin duten harremanaren inguruan hausnartzea	Euskararekin harremana indartzera gonbidatzea		
	8 modulua		Euskara erabiltzeko jarrera erakustea		Eguneroko harremanetan euskara erabiltzeko ahalegin bat egitea
	9 modulua			Erraztasunak erabileran izan dezakeen eragina ikustea	
DBH4	10 modulua	Euskara balio indartsuekin lotzea			
	11 modulua		Euskara gehiago erabiltzeko jarrera erakustea	Euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak ikustea	Euskara gero eta gehiago erabiltzera gonbidatzea
	12 modulua			Segurtasun faltak (lotsa,	

				beldurra...) erabileran den eragina ikustea	
Batx1	13 modulua	Euskaldun izateari buruz hitz egitea: euskaraz egiten den guztia euskalduna da			
	14 modulua				Lagunartean euskara gehiago erabiltzera animatzea
	15 modulua			Erabileran eragiten duten faktoreak aztertzea. Horretaz jabetzea.	
Batx2	16 modulua	Gure jokabideekin zer erakusten dugun aztertzea.	Euskara gehiago erabiltzeko gogoa lantzea.		
	17 modulua				Hainbat egoeretan euskara gehiago erabiltzeko frogak egitea. Horretara animatzea.
	18 modulua	Erreferente egokiak eskaintzea			Euskara gero eta gehiago erabiltzera gonbidatzea

5- Moduluen taula:

	1. hiruil.	2. hiruil.	3. hiruil.	Ikasleen Batzordea Ikasgeletako saioetan
DBH1	Gaia kokatzea	Erabilera I: Irakasleen laguntza onartzea	Erabilera II: instituturako erronka	
DBH2	Identitatea I: hizkuntzen ekologia + euskara eta identitatea	Erabilera III: ohitura aldaketan frogatzea	Zailtasunak I: erraztasuna I	
DBH3	Identitatea II: glocaliazioa	Erabilera IV: elkarrizketak ohiko egoeretan	Zailtasunak II: Erraztasunak II	
DBH4	Identitatea III: euskara balio indartsuekin lotzea	Erabilera V: nolakoa izan nahi dut?	Zailtasunak III: lotsa eta beldurrak	
Batx1	Identitatea IV: aurreiritziak eta hizkuntzen funtzioak	Erabilera VI: lagunartean erabiltzeko tresnak	Zailtasunak IV: erabileran eragiten duten faktoreak	
Batx2	Identitatea V: hori erakutsi nahi dut?	Erabilera VII: paraxutistak	Identitatea + erabilera: aurrera begira zer?	

6- Gazteen euskara batzordea

Ikasleekin bi euskara batzorde osatzea aurreikusten da:

- DBH1etik DBH4ra bitartekoa
- Batxilergokoa

DBHko ikasleen euskara batzordea geletako ordezkariekin osatuko da: gela bakoitzetik ordezkari bat. Bi zeregin izango ditu: batetik, gela barruko saioetarako eduki batzuk prestatzea eta aurkeztea, eta, bestetik, institutuan euskararen inguruan egiten diren girotze jardueretan parte-hartzea. Institutuko arduradunek aztertu beharko dute antolaketak nolakoa izan behar duen: nork dinamizatuko duen, non bildu, noiz...

Batzilergokoen euskara batzordean nahi duten ikasleek parte hartuko dute: borondatezkoa izango da parte-hartzea. Hauek ere bi zeregin izango dituzte: geletako saioetan parte hartzea eta girotze lana egitea. Ikasleen batzorde honek besteak baino garrantzi handiagoa da: batzorde honetan euskararekiko sentsibilitatea baduten ikasleak bilduko dira. Hau da, euskararekiko aktiboak izateko prest dauden ikasleek parte hartuko dute batzordean eta horiekin lan egitea garrantzitsua da bai institutuko euskararen erabilera indartzera begira baita ikasle hauek institututik kanpo ere euskara erabil dezaten ahalegina egitera begira ere.

Horregatik, antolaketa eta baliabide kontuak tarteko, batzorde bakarra osatzea erabakitzen bada, bigarrenari lehentasuna ematea da proposamena.

Gaia kokatzen

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

1 / 18 modulua

Kokatzea

DBH1eko ikasleekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da. Helburua euskararen erabileraren gaia eta jarreraren proiektuaren gaia kokatzea da. Hau da, hurrengo moduluetan landuk denari sarrera egitea.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

1. modulua: Aurkezpena eta gaian kokatzea

Helburuak:

- Erabileraren gaia kokatzea
- Aurrera begira zer landu nahi dugun adieraztea
- Ikasleen Batzordearen ideia aurkeztea eta osatzea

Lehenengo saioaren azalpena:

- Lehenengo ideia emango diegu: Institutuko ikasleak dira. Mendebaldea institutuaren helburuetako bat bertako ikasleek euskara eta gaztelania ondo ikastea da eta ingelesean ere maila on bat lortzea. Horretaz gain, bertako ikasleek euskara asko erabiltzea ere bada helburua: euskaraz bizitzeko gai izatea. Euskaraz bizitzeak esan nahi du euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea. Badugu kezka horren inguruan, institutuaren eta irakaslearen helburua hori da, euskara erabiltzen dela ere ikusten dugu, baina ez da guk nahi genukeen modukoa. Horri buruz hitz egin nahi dugu ikasleekin: ez ditugu epaituko, hausnartzeko bidea emango dugu, euskararen aldeko ekintza batzuk antolatzeraz gonbidatuko ditugu...
- Power point aurkezpena jarriko dugu: 10-15 argazki izango dira, institutuari eta Herriari buruzkoak. Argazki bakoitza jartzen dugunean lekua ezagutzen duten eta argazkia zergatik jartzen dugun ba ote dakiten galdetuko diegu. Ikuste nahi dugu: institutua noiz sortu zen, institutuko euskararen proiektua (kanpainak...), Herriko euskararen bilakaera, Herriko euskararen lekuak edo Herriko euskararen alde zer egiten den (euskara elkarteak, aldizkaria, euskaltegiak...).
- Institutuak bide horretan jarraitu nahi du eta herrian euskararen erabileraren alde egiten diren ekimenen parte izan nahi du. Ikasleak ere horretan parte hartzeraz gonbidatu nahi ditugu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Lehenengo saioko ideia nagusienak gogoraraziko dizkiegu.
- Ondoren ideien ekaitza egingo dugu: euskararen aldeko zein kanpaina, jaialdi edo ekitaldi ezagutzen dituzte? Parte hartu izan al dute? Zerrenda bat egingo dugu denon artean arbelean.
- Horren inguruan jarraituko dugu: gustatzen al zaizkie? Zeintzuk? Beharrezkoak al dira? Laguntzen al dute?...
- Taldeka banatuko ditugu (2-3ko taldeak): beraiek zerbait berria antolatu behar balute, zer antolatuko lukete... Institutuan? Herrian?
- Ikasleen Batzordearen ideia azalduko diegu: zertarako osatuko den, nortzuk osatuko duten, nork dinamizatuko duen, noiz bilduko den... Bi norabidetan lan egingo duela aurkeztuko zaie: ikasgeletako saioetan laguntzera begira eta girotze lana egitera begira.
- Boluntarioak eskatuko ditugu eta bi aukeratuko ditugu.
- (Ikasleen Batzorderik ez osatzea erabakitzen bada, institutuan euskararen normalizazio planaren ildo nagusienak aurkeztuko zaizkie eta beraiek zertan parte hartu dezaketen ere aipatuko zaie: kanpainak prestatzen, dinamizatzen...).

Prestatu beharrekoak:

- Power pointa eta azalpenak.
- Ikasleen Batzordearen berri ondo emateko aurretik hainbat erabaki hartu behar dira.
- Batzorderako ikasleen aukeraketa nola egin erabaki behar da: boluntarioen arteko zozketa? Irakasleak erabakitzen du? Ikasleen artean aukeratuko dituzte?...

Eranskinak:

- Modulu honetan ez da eranskinik behar.

Mezuak adosten

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

2/18 modulua

Kokatzea

DBH1ekoekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da. Erabileraren gaia kokatu nahi dugu eta, bereziki, helburu zehatz bat lortu nahi dugu: erabilerari begira ikasleek irakasleon laguntza esplizituki onartzea. Hau da:

Erabilerari begira institutuan jarritako gutxieneko helburuetara iristen lagundu behar digu modulu honek.

Euskaraz egiteko eskatzen diegunean (patioan, pasiloetan...) zergatik eskatzen diegun ulertzeko eta beraiek modu positiboan hartzeko balio behar du modulu honek.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntza errealitateaz ohartzen hastea: ikastetxeko euskararen erabilera neurtzea.
- Euskara eta identitatearen arteko lotura aztertzen hastea.
- Ikasleek, euskara gehiago erabiltzera begira, dituzten zailtasunez ohartzen hastea eta irakasleon laguntza onartzea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: D ereduko institutua da. Guk nahi dugu gure ikasleek bi hizkuntza ondo ikastea (euskara eta gaztelania) eta ingelesean ere maila on bat lortzea. Nahi genuke, gainera, ikasleek euskara asko erabiltzea, eta horretan laguntzeko prest gaude arren, ez dago gure esku. Erabileran gaiarekin kezka dugu, eta horri buruz aritu nahi dugu beraiekin.
- Euskararen kiniela egingo dugu, baina ez dizkiegu emaitzak emango.
- Euskararen ezagutza eta erabilerari buruz duten pertzepzioa erabiliko dugu institutuari buruz hitz egiteko:
 - o Institutuan antzeko datuak emango al dira? Horretaz hitz egingo dugu: Non erabiltzen da? Non ez? Zenbat erabiltzen dute beraiek? Gustatuko al litzaieke gehiago erabiltzea? Non daude zailtasunak?
 - o Erabilera neurtzeko boluntarioak eskatuko ditugu (2-3 pertsonako taldeak):
 - Talde batek patioko neurketa egingo du
 - Beste batek pasiloetakoa
 - Beste batek gela barrukoa
- Bi egunetan egin behar dute neurketa: 20 minutuko tarteak egun bakoitzean.
- Oso garrantzitsua da neurtzaileak diskrezioz aritzea. Besteek ez dute ohartu behar hizkuntza aztertzen ari direnik. Modu ahalik eta naturalenean batetik bestera ibili beharko dute, eta tarteka eserita geratu ikasle asko pasatzen diren guneren batean...
- Neurketa egin behar dutenak binaka joango dira eta koaderno edo orri batean apuntatuko dituzte datuak: batek euskara neurtuko du eta besteak gaztelania.
- Neurketaren ondoren, talde bakoitzak bere datuak grafiko batean jarriko ditu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Neurketa egin duen talde bakoitzak bere emaitzak aurkeztuko ditu.
- Euskal Herriko datuak ere emango dizkiegu: kinielaren emaitzak.
- Horri buruz hitz egingo dugu: Espero zutena al da? Zerbaitek harritu al ditu? Zer iruditzen zaie? Eta abar.
- Ondoren, identitateari buruz hitz egiten hasiko gara:
 - o Taldeka banatuko ditugu: 2-3kideko taldeak.
 - o *Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?* izeneko fitxa banatuko diegu eta talde bakoitzari herrialde bat emango diegu (*eranskinetan dago*).
 - o Fitxa beteko dute eta ondoren guztion artean aipatuko ditugu emaitzak: Ez al dira elementu komun asko? Berdin al zaigu hemengo izatea, Japoniarrak izatea edo Hego Afrikarrak izatea? Zein izan daitezke benetako elementu bereizgarriak? Elementu horiek zenbaterainoko pisua dute nire bizitzan? Euskara bereizgarri nabarmena izan daiteke? Baina euskarak ba al du benetako pisurik nire bizitzan-identitatean?
 - o Galdera horien inguruan hausnartuko dugu: ez dago erantzun zuzenik, bakoitzak bere iritzia eman dezake eta irakaslea ondorio nagusi batzuk laburtzen ahalegindu daiteke.
 - o Guk ondorio honetara iritsi nahi dugu: elementu bereizgarri nagusia hizkuntza da. Edozer euskaldun egiten du (baita edozein ere) euskaraz egiten bada. Egon daitezke elementu bereizgarri gehiago, baina nagusia hizkuntza bera da. (Noski, horrek ez gaitu ez hobeak ez txarragoak egiten, baina munduan ikusteko eta munduan kokatzeko oinarri bat da).
- Ondoren galdera zuzena egingo diegu: Euskara gehiago erabiltzea gustatuko al litzaizueke? Horri buruz hitz egingo dugu: non dituzte zailtasunak? Mugak? Zailtasunak?...
- Lagungarria dela ikusten badugu: *Nola egin nahiko nuke egoera hauetan?* fitxa banatuko diegu.
- Hau lortu nahi dugu: beraiek onartzea euskara gehiago erabili nahi luketela, eta horretarako zailtasunak non dauden identifikatzea. Segurenik bi hauek behintzat azalduko dira: ohiturak (gaztelaniaz egiteko ohitura dugu eta aldatzea zaila da) eta erraztasuna (gaztelaniaz errazago egiten dugu). Ohiturak aldatzea ez da erraza (baina aldatu ere egin daitezke) eta erraztasuna lortzeko euskara erabili egin behar dute.
- Aurrera begira zer:
 - o Gu laguntzeko prest gaudela esango diegu. Gai hauen inguruan hausnartzen jarraitu nahiko genukeela eta ikasturte honetan eta hurrengoetan hainbat tresna ere eskainiko dizkiegula: jolasak,

ebete

erronkak... Beraien jokabidea ez dugula epaitu nahi eta aldiz baliabideak eskaini nahi dizkiegula.

- Horretaz arituko gara, baina beraien aldetik jarrera bat ere nahi genuke: euskara erabiltzeko ahalegina, txikia bada ere, egitea. Gutxienez, bi gauza nahi genituzke:
 - Gurekin euskaraz egitea (eta horretan ere lagunduko diegu).
 - Pasilloetan edo patioan euskaraz egiteko eskatzen diegunean, ondo hartzea: ez dugu kargu hartzeko egiten, euskara gehiago erabiltzen laguntzeko baizik.

Euskararen kiniela

	Ezagutza	Erabilera
Bizkaia-Araba		
Bizkaia-Gipuzkoa		
Bizkaia-Iparraldea		
Bizkaia-Nafarroa		
Araba-Gipuzkoa		
Araba-Iparraldea		
Araba-Nafarroa		
Gipuzkoa-Nafarroa		
Gipuzkoa-Iparraldea		
Iparraldea-Nafarroa		

	Ezagutza	Erabilera
Hiriburuetan: Iruña Bilbo Gasteiz Donostia	%0-%10	%0-%10
	%10-%20	%10-%20
	%20-%50	%20-%50
	%50-%75	%50-%75
	%75-%90	%75-%90
	%90-%100	%90-%100

Euskararen kiniela: Ezagutza eta erabilera datuak

	Ezagutza	Kaleko erabilera		Ezagutza	Erabilera
Nafarroa	%11,6 <i>%9,1</i>	%6,6	Iruña	%8,6 <i>%10,7</i>	%2,8
Bizkaia	%25 <i>%24,8</i>	%10,4	Bilbo	%15,5 <i>%26,6</i>	%4,3
Gipuzkoa	%51,6 <i>%19,7</i>	%32,7	Donostia	%34,7 <i>%28,3</i>	%18,2
Araba	%16,2 <i>%24,7</i>	%4,7	Gasteiz	%15,1 <i>%25,5</i>	%4,0
Iparraldea	%22,8 <i>%13,1</i>	%4,6			
Bataz bestekoa	%27,6 <i>%19,5</i>	%14,2			

- Soziolinguistika Klusterreko web orritik hartutako datuak dira.
- Ezagutzari dagokionez:
 - o Aitortutako ezagutza da. Bakoitzak erantzuten du euskaraz dakien edo ez.
 - o Letra txikitan eta kurtsibaz: ia euskaldunak. Ia euskaldunak direla diotenak. euskaraz bazekiten eta galdu egin dute neurri handi batean, euskara ikasten ari dira baina oraindik beraien burua ez dute euskaldun moduan ikusten...
- Erabilera datuak kale neurketenak dira: Ez da ezer galdetzen, kalean entzuten dena jasotzen da eta hortik atertzen dira kopuruak.

Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?

Zuek _____ herrialdekoak zarete.

(Aukerak: Alemania, Errusia, Hego Afrika, Maroko, Argentina, Chile, Kanada, Japon, Txina...)

Saiatu zaitetze leku hartan kokatzen eta hangoak bazinete bezala erantzuten. Zalantzak izan ditzakezue, baina daukazuen erreferentzien arabera erantzun.

	Bai	Ez
Parte hartzen al duzue olinpiadetan?		
Zuen kirolen artean futbola ere ba al dago?		
Zuen herrialdeko komunikabideek egin al zioten jarraipenik munduko futbol txapelketari?		
Madona abeslaria ezagutzen al duzue?		
Zuen herrialdeko telebistetan botatzen al dituzte Madonaren bideoklipak?		
Mozart musikaria nor den ba al dakizue?		
Musika klasiko kontzerturik izaten al da zuen herrialdean?		
Batukada edo antzeko perkusio talderik ba al da zuen herrialdean?		
<i>Operación triunfo</i> zer den ba al dakizue? (dena delako hizkuntzan)		
Zuen herrialdean ba al da <i>Operación triunfo</i> moduko programarik?		
You tubeko bideoak ikusten al dituzue?		
Facebook erabiltzen al duzue?		
Ferrari kotxe marka ezagutzen al duzue?		

Nola egin nahiko nuke egoera hauetan?

(Ez diegu orria banatuko, egoerak aipatuko dizkiegu eta beraiekin batera osatuko ditugu egoera horiek eta bilatuko ditugu egoera berriak)

- Ezagutzen dudan pertsona batek (kirolari ezagun batek, musikari ezagun batek...) zerbait galdetzen dit kalean eta euskaraz galdetzen dit. Euskaraz erantzun nahiko nioke?
- Ezagutzen ez dudan pertsona batek zerbait galdetzen dit kalean eta euskaraz galdetzen dit. Euskaraz erantzun nahiko nioke?
- Zein pertsonai ezagun ezagutzen ditugu euskaldunak eta euskaltzaleak direnak? Euskararekin lotuko genituzkeen eta gustuko ditugun jardueretan aritzen diren zein pertsonai ezagutzen ditugu? Pertsonai horiekin hizt egin beharko bagenu, zein hizkuntzatan egingo genuke?
- Musika talde batean jo nahi dut, eta euskaraz abesten duen eta beraien artean euskaraz egiten duten talde batetik deitzen didate. Asko gustatzen zait beraien musika, lokala dute, kontzertuak... Talde horretara banoa, nola egingo nuke?
- Gustuko lan bat eskaintzen didate, baldintzak oso onak dira. Baina badakit enpresa horretan euskaraz egiten dela. Lanpostu hori onartuko banu nola egingo nuke bertakoekin?

Ondorioa: Hainbat egoeretan euskaraz egin nahi dugu, euskara erabili nahi dugu. Egoera horietan eroso eta gustura sentitzeko erraztasuna izatea komeni zaigu. Ba al dugu erraztasun hori? Nahiko eroso sentituko al ginateke? Nola lortu erraztasun hori?

Institurako erronka

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

3/18 modulua

Kokatzea

DBH1koekin hirugarren hiru hilekoan egiteko modulua da. Erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugu:

Euskaraz gehiago egiteko gai direla ohartzea nahi dugu, eta, ahalegin horretan ondo pasa dezaketela eta beraiekin burua gustura ikusi.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Institutuko euskararen erabileraren inguruan hausnartzea
- Erronka bat proposatzea
- Ohiturei buruz eta ohiturak indartzeari/aldatzeari buruz hitz egiten hastea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzen jarraitu nahi dugula esango diegu. Dinamika batekin hasiko gara horretarako: postitak.
- Galderak egingo dizkiegu eta postit handietan idatzi behar dituzte erantzunak eta arbelean itsatsiko dituzte.
- Lehenengo bi galderak beroketa moduan erabiliko ditugu: Zein da gustukoena duzuen kolorea? Nora joan nahiko zenukete hurrengo oporretan?
- Hurrengo hiru galderak (bi nahikoa izan daitezke) erabilera buruzkoak izango dira: Zer sentitzen duzue irakasleek *egin euskaraz* moduko zerbait esaten dizuetenean? Zer sentitzen dute irakasleek zuei hori esateko? Irakasleek erdaraz egingo balute eta zuek bazinete haiek euskaraz egitea nahiko zenuketenak, zer sentituko zenukete ez duzuela lortzen ikustean? (*galderak ondo pentsatu behar dira, beraiek euskara gehiago erabili nahi luketela onartzea bilatzen dugu, gero aurrera pausoak proposatu ahal izateko*).
- Arbelean euskararen inguruan jarri ditugun postitak irakurriko ditugu eta horiei buruz hitz egingo dugu. Gutxi gora behera ondorio honetara iritsi nahi dugu: euskara gehiago erabili nahi lukete baina ez dute nahi irakasle bat ondotik euskaraz egiteko eskatzen ibiltzea. Badakigu, beraiek nahi badute, euskara gehiago erabiltzeko gai direla guk ezer esan gabe ere. Jolas bat proposatuko diegu astebeterako.

Erronka:

- *Konplizeak eta espiak* jolasa proposatuko diegu (eranskinean agertzen da azalpen).

Bigarren saioaren azalpena:

- Jolasari buruz hitz egingo dugu: zer moduz aritu dira? Lortu al dute helburua? Konplizeak eta espiak ondo aritu al dira? Erraza izan al da beraiantzat? Nola ikusi dute beraien burua?...
- Horrekin batera, hainbat ondorio ere aterako ditugu eta horiei buruz hitz egingo dugu: gai al dira beraien kabuz euskara gehiago erabiltzeko? Ondo sentitu dira euskaraz gehiago egiteko ahalegin horretan? Gustatu al zaizue norbaitek atentzioa deitzea edo norbaitek zoriontzea? Non dituzte zailtasunak? Noiz kostatzen zaie euskara mantentzea? Jarraitzeko eta hausnartzeko prest?
- Jolasarekin ez dugula jarraituko aipatuko diegu, baina jolaseko jarrera mantentzea asko eskertuko genukeela. Aurrerago gaian gehiago ere sakonduko dugula eta erronka eta jolas gehiago ere izango dituztela.

Prestatu beharrekoak:

- Lehenengo saioan egin beharreko galderak ondo pentsatu behar dira.

Eranskinak:

Konplizea eta espiak jolasa

Jolasaren pausoak:

- 1.- Zozketa
- 2.- Erronkak
- 3.- Espiak eta konplizeak

1.- Zozketa

Bi zorrotan gelako ikasleen izen guztiak sartuko ditugu papertxoetan idatzita.

Lehenengo zorroa konplizeena izango da: banan bana izenak aterako dituzte, eta ateratzen den izen horren konplizeak izango dira papertxoa atera dutenak.

Bigarren zorroa espiena izango da: banan bana izenak aterako dituzte, eta ateratzen den izen horren espiak izango dira papertxoak atera dutenak.

Beraz, gelakide bakoitzak espia bat eta konplize bat izango ditu eta beste baten espia eta konplizea ere izango da.

(Beste hainbat modutara ere egin daitezke banaketa: adibidez, euskara gehien erabiltzen duten hiru ikasle aukeratu, horiek espiak izan daitezke. Eta, euskara gutxien erabiltzen duten beste hiru konplizeak izan daitezke. Ikasleek beraiek erabaki dezakete zeinek zein paper hartu baina ez lirateke guztiak espia eta konplize izango).

2.- Erronka

Astebeteko erronka proposatzen diegu. Aste horretan institutuan beraien artean euskara asko erabiltzen ahalegindu behar dute.

Irakasleak ez dira ibiliko *egin euskaraz* moduko esaldiak erabiltzen, baina ikaskideen artean laguntzea izango da jolasaren oinarrietako bat.

3.- Espiak eta konplizeak

Espia zelatatzen dabilena da, gaztelaniaz egiten harrapatu nahi zaituena. Gutxienez egunean behin zuregana hurbildu eta esango du: espia iritsi da, norbaitek kontuz ibili beharra dauka. Espiak hori esaten duenean ikasleak tarte horretan behintzat euskaraz egiten ahalegindu behar du. Espiak, urruntzea erabakitzen duenean, txartel bat emango dio ikasle horri tarte horretan euskaraz egin badu.

Konplizeak, berriz, euskara erabili dezazun lagundu nahi dizu. Gaztelaniaz entzuten zaituenean zuregana hurbilduko da eta goxoki bat emango dizu. Hauxe esango dizu: *Tori, goxoki hau zuretzat, merezi ote duzu?* Goxokia ematen dizunean hizkuntza aldatu eta euskara mantentzen ahalegindu behar duzu.

Zenbat txarteekin amaituko du bakoitzak? Zenbat goxoki banatuko dira?

Hizkuntza–aniztasuna

Hizkuntza–ekologia

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

4/18 modulua

Kokatzea

DBH2koekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskara eta norberaren identitatearen arteko harremana aztertzen hasi nahi dugu, eta abiapuntu moduan hizkuntza–aniztasuna hartuko dugu.

ebete hizkuntza–zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntza-aniztasunari buruz eta hizkuntza-ekologiari buruz hitz egiten hastea, eta, bide horretatik, euskarak guretzat duen balioa ikustea.
- Aniztasunaren aldeko mezuak ematea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu. Hau izan dateke, gutxi gora behera, azaldu dezakeguna: institutuaren helburuetako bat hizkuntzak erakustea (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta euskararen erabilera indartzea dira. Baina hizkuntza-aniztasun handia dagoen mundu batean bizi gara eta gure inguruan ere hainbat hizkuntza elkarrekin bizi dira. Ikasten ari zareten hiru hizkuntza horiek ikuspegi horretan kokatzea garrantzitsua da.
- Bikoteka jarriko dira eta bikote bakoitzari 2 postit emango dizkiogu.
- Lehenengo galdera: zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? Postitetan idatzi eta arbelean itsatsiko dituzte. Irakasleak multzoka egingo ditu: 0-10 artekoak, 10-20 artekoak, 20-30...
- Kinder hizkuntzak ariketa egingo dugu. Bikote bakoitza zerrenda osatzen ahaleginduko da. Hau azalduko diegu: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntzak dira, azkenekoa ezin guztiak Europako hizkuntzak. Zein da bakoitza?
- Ondoren, guztion artean zerrenda osatzen ahaleginduko gara eta irakasleak emaitzak emango ditu.
- Ariketari buruz hitz egingo dugu: zenbat asmatu dituzte? Ba al zekiten European horrenbeste hizkuntza bazeudenik? Baina ez dira horiek bakarrik, beste hainbeste falta dira: guztira 55 inguru dira. Falta dira euskara, katalana...
- Postiten ariketari helduko diogu berriz ere: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntza horiek hitz egiten al dira gaur egun Euskal Herrian? Bulgariara, Alemaniera, Errumaniera, Ingelesa...
- Beste postit batean berriz hizkuntza kopuru bat idatzi eta arbelean jarri beharko dute. Kopuruen arabera multzokatuko ditugu.
- Ondorioa: 104 hizkuntza hitz egiten dira EHn (Unescok 2009an argitaratutako ikerketa). Munduan 5000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.
- Lehenengo mezua: gizarte eleanitz batean bizi gara. Gure inguruan hizkuntza asko hitz egiten dira.
- Ondoren, Babelko itsasontziaren dinamika egingo dugu:
 - o Hirukoteak edo laukoteak egingo ditugu.

ebete

- Talde bakoitza hizkuntza bat izango da: euskara, gaztelania, txinera, ingelesa, suahilia...
 - Itsasontzi batean doaz eta ondoratzen ari da. Zama handiegia da.
 - Arintzeko, hizkuntza bat bota behar da itsasontzitik.
 - Hizkuntza bakoitzak (talde bakoitzak) beste bat aukeratu behar du itsasontzitik botatzeko eta zergatik aukeratzeko duen hizkuntza hori esan behar du.
 - Bozketa egingo dugu eta argumentuak azalduko dira.
 - Boto gehien duen hizkuntza mundutik desagertzen da.
 - Beste 4-5 aldiz egingo dugu ariketa bera eta gero eta hizkuntza gutxiago izango ditugu itsasontzian.
- Ariketarekin amaitzean, atera diren argumentuei buruz hitz egingo dugu: zeintzuk atera dira gehien? Seguruenik: ezezaguna izatea, zaila izatea... Ikusiko dugu argumentuek ez dutela zerikusirik hizkuntzekin beraiekin (aberatsa izatea, hobea izatea...) bestelako egoera batzuekin baizik (guk ez ezagutzea, urruti egotea...).
 - Saioaren amaiera: hurrengo saioan gai honekin jarraituko dugula aipatu diegu, eta gonbite bat egingo diegu: etxean dituzten produktuetako azalpen orrietan zein hizkuntza agertzen diren begiratzea (janariak, etxeko tresnak, jokuak...).
 - *Oharra: hizkuntza bat kanporatzeko argumentuen artean zailtasunarena egon daiteke (hizkuntza zaila izatea). Hori agertzen bada, oso argi azaldu behar diegu hori ez dela horrela, ez daudela hizkuntza zailak eta errazak: norberaren abiapuntua eta hizkuntza horrekin duen harremanaren arabera errazagoa edo zailagoa izango dela baizik. Hau da, gaztelania duen batentzat errazagoa da kataluniera ikastea euskararen aldean (gertuago duelako) baina Japoniar batentzat bai euskara bai gaztelania oso zailak dira. Era berean, Txinatarra ikasteak oso zaila ematen du, baina hizkuntza hori txikitatik ikasi duten 600 milioi haurrentzat oso erraza izan da.*

Bigarren saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: Munduan 5000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta Euskal Herrian 100 baino gehiago. Hori ona edo txarra da? Eta horren guztiaren barruan zein leku betetzen du euskarak? Horri buruz aritu nahi dugu gaurko saioan.
- Ona al da hizkuntza-aniztasuna?
 - o Taldetxoak egingo ditugu eta galdera honi erantzun beharko diote: hizkuntza bakarraren alde egongo bagina, zein hizkuntza aukeratuko genuke? Zergatik?
 - o Talde bakoitzak bere aukera egingo du eta talde osoari aurkeztu.
 - o Ez badaude ados, argumentuak oinarri hartuz eztabadai bideratuko dugu.
 - o Ados badaude edota egokia ikusten badugu, hainbat zalantza aurkeztuko dizkiegu:
 - Hizkuntza internazionalena aukeratzen badute, ingelesak beharko luke. Baina ez da munduan erabiliena edo hiztun gehien dituena. Zergatik da hizkuntza internazionalena? Hizkuntza berarengatik edo hizkuntza hori duten herrialdeetako botere politiko-ekonomikoagatik? Hori onartu behar dugu?
 - Hizkuntza erabiliena aukeratzen badute Txinerak beharko luke (Mandarinak). 600 milioi hiztun inguru ditu. Irudikatzen al dugu gure burua eta ingurua Txinera hutsean hizketan?
 - Gaztelania aukeratzen badute: ez da ez erabiliena ezta internazionalena ere. Herrialde askotan da hizkuntza ofiziala baina Arabiera ere 23 herrialdetan da ofiziala.
 - Hizkuntza aberri bat sortzearen aldekoak badira... Nork egin du ahalegina Esperantoa ikasteko?
 - ...
- Ikusten dugu hizkuntza bakarra aukeratzea zaila dela. Eta ziurrenik ez genuke hori nahi. Bide beretik, hizkuntza gutxi batzuk aukeratzea ere oso zaila litzateke. Nola egin aukeraketa? 10 hizkuntza aukeratu beharko bagenitu... ados jarriko al gineteke gure artean? Eta ados jarri alda daitezke herrialde ezberdinetako pertsonak elkarren artean?
- Aztertu dezagun beste ikuspegi batetik. Zein dira hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak?
 - o Taldeka zerrenda bat egitea eskatuko diegu eta azaldu egin beharko dute.
 - o Zerrenda osatu nahi badugu hainbat egoera proposatuko dizkiegu ondoren (eranskinetan agertzen dira).

ebete

- Eta euskara jakiteak eta erabiltzeak zer ematen digu? Horri ere erantzun beharko diote.
- Azken mezua emango diegu:
 - Hizkuntza-aniztasuna ona da. Aniztasun hori positiboki bizitzeko gertukoak zaintzetik hasia komeri da: bertako hizkuntzak eta ikasten ari garen hizkuntzak. Horietatik abiatuz beste hizkuntzak ere errespetatu eta gero eta gehiago ikasteko jarrera hartzea da positiboena: adibidez, bidaiatzen dugunean joaten garen lekuetako hizkuntzetako esaldiak eta hitzak ikasiz eta erabiliz.
 - Euskara aniztasun horren parte da, eta laguntzen digu leku batekoak izaten (gure identitatearen parte da). Hori bai, ez ahaztu jakiteak baino erabiltzeak duela garrantzia, eta, gainera, euskara ondo jakiteko erabili egin behar dela.
 - Hurrengo saio batzuetan ere jarraituko dugu gai hauekin.

Eranskinak:

- Kinder hizkuntzak
- Kinder hizkuntzak emaitzak
- Hizkuntzak jakitearen abantailak (adibideak)

Hizkuntza

Gaztelania

KINDER SURPRISE, SORPRESA, SURPRESA, HUEVO CON SORPRESA, ÜBERRASCHUNG, OVERRASKELSE, OVERRASKNING, YLLÄTYS, ΕΚΤΡΑΧΗΗ

FERRERO S.p.A. ALBA - ITALY
FERRERO ARDENNES S.A. B-6700 ARLON
FERRERO POLSKA S.P.Z O.O.
06-622 BELSK DUZY KJGROJCA, POLAND
FERRERO ARGENTINA S.A. LOS CARDIALES,
(2814) POIA DE BUENOS AIRES



E ATENCIÓN, LEA Y GUARDE:
Juguete no apto para menores de 3 años. Las partes pequeñas podrían ser ingeridas o aspiradas.

P ATENÇÃO, LEIA E GUARDE:
Brinquedo não apto para menores de 3 anos. As peças pequenas poderiam ser ingeridas ou aspiradas.

UK WARNING, READ AND KEEP: Toy not suitable for children under 3 years. Small parts might be swallowed or inhaled.

I ATTENZIONE, LEGGERE E CONSERVARE: Giocattolo non adatto a minori di 3 anni. Le parti piccole potrebbero essere ingerite o aspirate.

D ACHTUNG, LESEN UND AUFBEWAHREN: Spielzeug ist für Kleinkinder unter 3 Jahren nicht geeignet. Die Kleinteile könnten verschluckt oder eingeatmet werden.

F ATTENTION, A LIRE ET A CONSERVER: Jouet ne convenant pas aux enfants de moins de 3 ans. Les petites pièces pourraient être avalées ou inhalées.

NL ATTENTIE, LEZEN EN BEWAAREN: Speelgoed niet geschikt voor kinderen onder de 3 jaar. De kleine stukjes kunnen ingeslikt of opgesnoven worden.

SF HUOMIO, LUE JA SÄILYTÄ: Yllätyslelua ei saa antaa alle 3 vuotiaalle. Pienet osat voivat juuttua kurkkuun tai nenään.

S OBSERVERA, LÄS OCH BEHÅLL: Skall inte ges till barn under 3 år. Små delar kan fastna i halsen eller näsan.

DK BEMÆRK, LÆS OG OPBEVAR: Må ikke gives til børn under 3 år. Smådele kan sætte sig fast i hals eller næse.

GR ΠΡΟΣΟΧΗ, ΝΑ ΔΙΑΒΑΣΕΤΕ ΚΑΙ ΝΑ ΦΥΛΑΞΕΤΕ: Δεν είναι κατάλληλο για παιδιά κάτω των 3 ετών. Περιέχει μικρά κομμάτια που μπορεί να καταπούν ή να εισπνεύσουν.

N N.B.! LES OG BEHOLD: Må ikke gis til barn under 3 år. Små deler kan sette seg fast i halsen eller nesen.

PL UWAGA, PRZECZYTAJ I ZACHOWAJ: Zabawka nie nadaje się dla dzieci poniżej 3 lat. Małe części mogą zostać połknięte lub wchłonięte.

РУССКИЙ ВНИМАНИЕ ПРОЧИТЕ И СОХРАНИТЕ: Игрушку не давать детям младше 3-х лет во избежание попадания мелких частей в рот или дыхательные пути.

UA УВАГА, ПРОЧИТАЙТЕ ТА ЗБЕРЕЖІТЬ: Іграшка не призначена дітям віком до 3 років. Діти можуть проковтнути чи вдихнути маленькі деталі.

CZ POZOR, ČTĚTE A USCHOVEJTE: Hračka není vhodná pro děti do 3 let. Mohly by spolknout nebo vdechnout malé části.

BG ВНИМАНИЕ, МОЛЯ ЗАПОМНЕТЕ: Играчката не е подходяща за деца под 3 години, тъй като те биха могли да глътнат или вдият малките парченца.

H FIGYELEM, OLVASSA EL ÉS ŐRIZZE MEG: A játék nem adható 3 éven aluli gyermekeknek, mert lenyelhetik vagy beszippanthatják a kis részeket.

HR POZOR, PROČITAJ I SAČUVATI: Igračka neprikladna za djecu mlađu od 3 godine, jer bi mogla progutati ili udahnuti sitne dijelove.

TR DİKKAT, OKUYUN VE SAKLAYIN: Bu oyuncak 3 yaşın altındaki çocuklara uygun değildir. Küçük parçalar yutulabilir veya nefes borusuna kaçabilir.

SK POZOR, PREČÍTAJ A ODLOŽI: Hračka nie je vhodná pre deti do 3 rokov. Drobné časti by mohli prehltnúť alebo vdychnúť.

SL POZOR, PREBERITE IN SHRANITE: Igračka ni primerna za otroke mlajše od treh let, ker bi lahko vdihnili ali pogoltnili drobne sestavne dele.

RO ATENȚIE, DE CITIȚI ȘI RETINUT: Nu lăsați jucăria la îndemâna copiilor sub 3 ani. Părțile mici pot fi înghițite sau inhalate.

MK ВНИМАНИЕ, ПРОЧИТАЈ И ЗАЧУВАЈ: Играчката е несоодветна за деца помали од 3 години, зашто можат да ја голтнат или да ги вдияшат нејзините ситни делови.

MD ATENȚIE, CITIȚI ȘI PĂSTRĂȚI: Jucăria nu se recomandă copiilor până la vârsta de 3 ani. Pentru copiii mici există pericolul de a înghiți jucăria care pot nimeri în organele de respirație sau respiratoare.

YU ПАЖЉИВО ПРОЧИТАТИ И САЧУВАТИ: Играчку не давати деци млађој од 3 године да не би прогутала или удахнула ситне комадиће.

LV UZMANĪBU, IZLASIET UN SAGLABAJIET: Rotāļlietu vēlams nedot bērniem jaunākiem par 3 gadiem, jo pastāv iespēja, ka rotāļlietas sīkās detaļas var iekļūt elpošanas ceļos.

LT DĖMESIO! PERSKAITYK IR SAUGOK: Žaisliukas netinka jaunesniems nei 3 metų vaikams: mažas detales gali praryti arba įkvėpti.

EST TÄHELEPANU! LOE LÄBI JA HOIA ALLES: Mitte anda väikseid mänguasju alla 3-aastastele lastele: need võivad sattuda lastele suhu või hingamisteedesse ja põhjustada õnnetuse.

العربية - اقرأ واحفظ :
لعبة غير مناسبة للأطفال الذين يقل سنهم عن ٣ سنوات لأنه يمكن ابتلاع أو استنشاق الأجزاء الصغيرة.

ERANTZUNAK	E: gaztelania P: portugesa UK: ingelesa I: italiera D: alemanera F: frantsesa NL: nederlandera SF: suomiera S: suediera DK: daniera	GR: grekoa N: norvegiera PL: poloniera PYCCKNN: errusiera UA: ucraniera CZ: txekiera BG: bulgariera H: hungariera HR: kroaziera TR: turkiera	SK: eslovakiera SLO: esloveniera RO: errumaniera MK: mazedoniera MD: moldaviera YU: serbiera LV: letoniera LT: lituaniera EST: estoniera ___: arabiera
-------------------	--	---	---

Hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak (egoerak)

(gehiago landu behar da, baina abiapuntu moduan balio dezake)

Ikuspegi gehiago–aberastasun kulturala:

- Bi herritar. Batek euskara daki eta besteak ez. Batek ulertzen du euskara eta beraz ulertzen du euskaraz egiten den kultura: musika, liburuak, egunkariak, telebista... Besteak ez. Baina euskara dakienak gaztelaniazko mundua ere ezagutzen du: musika... Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ikuspegi gehiago ematen dizkigu.

Gertutasuna sortzen du:

- Niretzat gertukoak diren hizkuntzak eta kulturak dakizkien beste norbaitekin nagoenean, gertutasuna sortzea errazagoa da. Adibidez: Rok musikaren oso zalea naiz. Beste zale batzuekin gertuko harremana sortzea errazagoa da rok musika gustatzen ez zaienekin baino. Hizkuntzak ere laguntzen du horretan: dakitenekin gertutasuna sortzea errazagoa da nire kultura eta bizimodua gertu dituen norbait delako.

Integratzen laguntzen du:

- Hemendik kanpo zoaz lanera. Adibidez, Alemaniara. Alemaniera jakiteak lana aurkitzen lagunduko dizu... baina lagunduko al dizu bertakoekin harremanetan jartzen?
- Urte gutxitan kanpotik jende asko etorri da Euskal Herrira, munduko hainbat lekutatik... Gaztelania guztiek ikasten dute, baina euskara ikasteak balio al du zerbaitetarako? Nola hartzen dugu guk kanpotar bat euskara egiten ahalegintzen dela konturatzean? Sortzen al du gertutasuna?

Beste batzuk

- Bidaiatzeko
- Hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna
- Mundua ikusteko moduak
- ...

Ohitura aldaketak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

5/18 modulua

Kokatzea

DBH2koekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da. Erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugu:

Ohiturak aldatzea ez da erraza, baina nahi izanez gero aldatzea horren zaila ere ez dela ikustea nahi dugu. Ohituren inguruan jolastera gonbidatuko ditugu eta horri buruz hausnartuko dugu.

Gure ikasleetako hainbatek euskara gehiago erabiltzeko gogoazazalduz edo borondate hori izan dezaketela iruditzen zaigu. Gehienek gaztelaniara jotzen dute lagunarteko harremanetan ere. Horri buruz hitz egiten hasi ezkerok, arrazoi bat ohiturak izango dira: gaztelaniaz egiteko ohitura dugu. Baina ohiturak aldatu ere egin daitezke. Horren inguruan kokatuko ditugu jarretan eragiteko dinamika hauek.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

Ikasleen euskararen erabileran eragitera begira:

- Ohiturak aldatzea erraza ez den arren (gaztelaniaz egiteko ohiturak), nahi izanez gero aldatu daitezkeela ikustea.
- Lagunartean euskara gehiago erabili dezaten proposamen zehatzak egitea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Aurreko saioetako ondorioak gogoraraziz hasiko gara: datuak, egindako frogak, beraiek aipatutako lorpenak eta zailtasunak...
- Zailtasun bat ohituretan agertuko da: hainbatekin eta hainbat egoeretan gaztelaniaz egiteko ohitura dugu.
- Horri buruz hitz egingo dugu: Eta ohitura aldatu nahiko bagenu? Erraza edo zaila da?
- Ondoren, azalduko diegu bi dinamika/jolas proposatuko dizkiegula. Batek hizkuntzarekin zerikusia du eta besteak ez.
- Hizkuntzarekin zerikusia ez duen dinamikarekin hasiko gara: Zein dira egunero institutuan dituzten ohiturak? Egunero errepikatzen direnak? Adibidez: gelara sartu eta motxila lurtean uztea, aulkiak mahaitik jaitea... Zerrenda bat osatuko dugu beraiekin.
- Ohitura horiek aldatze proposatuko diegu: Zein izan daiteke ekintza hori egiteko beste modu bat? Adibidez: Kiroleko poltsa aldageletako aulkietan uzten dugu, gimnasioko leku jakin batean biltzen gara...
- Proposamena: Bi-hiru ohitura hartu eta beste era batera egin behar dugu astebetean. Denon artean adostuko ditugu aldaketa horiek.
- Aste beteko epean ohitura berriekin aritu beharko dute.
- Oharrak:
 - o Seguruenik hasieran lagundu beharko diegu ohituren zerrenda egiten eta ohitura horiek nola aldatu daitezkeen ikusten. Hori bai, dinamika ulertzen dutenean s ekarpen asko egingo dituzte.
 - o Ohitura aldaketak ez du esan nahi zerbait hobetu behar dugunik, helburua aldaketekin jolastea da. Beraz, erabat aldaketa absurdoa izan daiteke. Adibidez: Etxera iritsi eta txirrina jo aurretik batetik hogeira kontatzea ingelesez.
 - o Froga egiten ari diren astean zehar, tarteka zer moduz ari diren galdetuko diegu, gaiaren jarraipena egiten ari garela ikusi dezaten eta guk ikusi dezagun gogoz ari diren edo ez.

Bigarren saioaren azalpena:

- Ohitura aldaketen inguruan egindako frogari buruz hitz egingo dugu: adostutako ohitura aldaketak bete al dituzte? Erraza egin al zaie? Zaila egin al zaie? Hasieran askotan pentsatuta egin beharreko hori gero errazago egin al dute?...
- Ondoren hizkuntza ohiturei buruz hitz egingo dugu: gai ote gara hizkuntzarekin horrelako saiakera bat egiteko? Jolas moduan bada ere?
- Proposamena: Helburu bat adostu beraiekin eta astebetean ahalegindu behar dute ohitura berriekin aritzen.
- Borondatezkoa izango da: nor dago prest erronkan parte hartzeko? (argi azalduko diegu ez dugula inor epaituko: nahi dugun gauza bakarra da beraiek frogatzea ohitura aldaketak errazak diren edo ez).
- Lagungarria baldin bada, eranskinetako bi fitxa erabiliko ditugu: Norekin egiten dut euskaraz? + Aste beterako erronka. Baina soilik beharrezkoa ikusten badugu erabiliko ditugu.
- Astebeteko epean adostutako betetzen ahalegindu behar dute
- Jarraipena egingo diegu,errefortzu positiboak emango dizkiegu...

Hirugarren saioaren azalpena:

- Egindako froga ebaluatuko dugu: Zer moduz aritu gara? Erraza izan al da? Nola ikusi du bakoitzak bere burua?
- Gure balorazioa egingo diegu, errefortzu positiboak ematen ahaleginduz: baloratzen dugula jarrera eta ahalegina, bidea hori dela...
- Aurrerantzean ere norabide berean jarraitzea proposatuko diegu, eta guk nola jokatuko dugun azalduko diegu: animatuko ditugu, atentzioa deituko diegu, dinamika gehiago proposatuko dizkiegu...

Norekin egiten dut euskaraz?

A- Guztia euskara B- Gehiena euskaraz C- Gehiena gaztelaniaz D- Guztia gaztelaniaz

Ikaskideekin eta lagunartean

	Nor da?	Zenbat euskara erabiltzen duzu?		
		Gelan	Ikastetxean	Ikastetxetik kanpo
Harreman handia duzun lagun bat				
Harreman handia duzuen beste lagun bat				
Harreman handia duzun hirugarren lagun bat				
Ikasgelan zure ezkerretan esertzen dena				
Ikasgelan zure eskuinetan esertzen dena				
Jangelan zure aurrean jartzen dena				
Jangelan zure ezkerretan esertzen dena				

Familian

	Zenbat euskara erabiltzen duzu?
Gurasoekin	
Anai-arrebekin	
Aitona-amonekin	
...	

ASTEBETE BATERAKO ERRONKA

Erronka baterako prest?

- Norekin egiten dut euskaraz? fitxatik guztia euskaraz egiten ez duzun bi pertsona aukeratu.
- Egoera bat aukeratu: Gelan, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo.
- Hurrengo urratsera iristen saiatu behar duzu astebete horretan zehar:
 - o D den kasuetan, C izatea.
 - o C den kasuetan, B izatea.
 - o B den kasuetan, A izatea.
- Frogatzeko prest?

Zein pertsona, egoera eta helburu aukeratu dituzu?

1-

2-

Erraztasuna I

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

6/18 modulua

Kokatzea

DBH2koekin hirugarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Erabileran eragin handia duen faktoreetako bat hizkuntzekin dugu erraztasuna da. Institutuko ikasleen gehiengoak erraztasun handiagoa du gaztelaniaz (bereziki egoera informaletan) euskaraz baino.

Beraiek horretaz jabetzea bilatzen da saio hauetan eta ikustea ez dela hizkuntzaren muga, hiztunarena baizik.

Euskararekin jolastu daitekeela ikustea ere bilatuko da saioetan, norberak bere hizkuntza aberasteko bide hori izan baitaiteke.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntza erabiltzerako garaian euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berbera ez dugula ikustea.
- Euskararekin jolastea eta ohartzea norberak bere hizkera gartu dezakeela eta hizkuntzarekin jolastea izan daitekeela bideetako bat.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: euskararen erabilerari eta euskararekiko jarrerei buruz hizketan jarraitu nahi dugu. Badakigu beraien artean gehienek gaztelaniaz egiteko ohitura dutela baina ohitura horren atzean hainbat arrazoi daude. Adibidez: erraztasuna. Bi saio hauetan horren inguruan aritu nahi dugu.
- Adarra jotzeko esamoldeetan eta haserre daudenean erabiltzen dituzten esamoldeetan aberastasun handiagoa euskaraz edo gaztelaniaz duten aztertuko dugu. Esamolde kopurua eta esamolde horiek duten indarra baloratuko ditugu. Kasu askotan gaztelaniaz aberastasun handiagoa izango dute. Mezu batek argi geratu behar du: euskarak baditu esamolde asko eta indartsuak eta bestela euskaraz ere sortu daitezke. Gaztelaniaz erabiltzen baditugu ez da euskararen errua, gure zailtasun bat baizik. (Ez ditugu epaitu nahi: hori ez da positiboa edo negatiboa, guk nahi dugu beraiek errealitatea horretaz jabetzea, kontziente egitea).
- Taldeka banatuko ditugu.
- Lehenengo egoera proposatuko diegu: kalean lagunekin doazela itxura oso xelebrea duen pertsona bat ikusten dute (beraien ustez janzkera oso arraroa daramana). Bromeetan hasten dira ari buruz. Ikusi al duzue hori? Ikusi al duzue nola jantzita doan?... Zer nolako esamoldeak erabili ditzakete egoera horretan?
 - o Talde batzuk gaztelaniazko esamoldeak idatzi beharko dituzte
 - o Beste talde batzuk euskarazkoak
 - o Minutu bat izango dute horretarako
- Bigarren egoera proposatuko diegu: Haserre zaudete, amorrarazita. Kirol batean aritzen zarete eta finala galdu duzue. Arbitroaren kulpa izan da, jokalekuarena (gaizki zegoen), beste taldekoena (joku zikina)... Zuen artean ari zarete partiduaren ondoren... nolako esamoldeak erabiliko zenituzkete?
 - o Talde batzuk gaztelaniazko esamoldeak idatzi beharko dituzte
 - o Beste talde batzuk euskarazkoak
 - o Minutu bat izango dute horretarako

ebete

- Ondoren esamoldeak ikusiko ditugu: talde bakoitzak bereak irakurriko ditu: lehenengo taldeak guztiak eta beste taldek ezberdinak dituztenak soilik.
- Zein da zerrenda luzeagoa? Euskarazkoa edo gaztelaniazkoa? Zein esamoldek dute indar gehiago?
- Bide horretatik jarraituko dugu galderak egiten: zergatik gertatzen zaigu hori? Euskarak ez al ditu esamolde indartsuak? Eta, beharrezkoa ikusten badugu, beste hizkuntza batzuk tartean sartu: ingelesez egiteko eskatu izan banizue, zerrenda luzea izango al zen? Indartsua? Seguruenik ez, ezta? Beraz, ingelesak ere ez ditu esamolde indartsuak? Eta orduan nola adierazten dituzte egoera horietan beraien emozioak? Ez da ba izango hizkuntzarena baino hiztunaren muga dela? Hau da, euskarak ere badituela baina zuek ez dituzuela ezagutzen edo ez zaretela erabiltzeko gai?
- Ideia hori onartzea bilatu beharko genuke: hiztunaren muga dela.
- Horik aurrera, mezuek positiboak izan behar dute: normala da muga hori izatea. Euskaraz ikasi arren gaztelania nagusi den inguru batean bizi dira. Baina erakutsi nahi diegu, nahi baldin badute gai direla euskarazko hizkera hori ere lantzeko-jasotzeko. Eta ez gaztelaniari kenduz, euskarari erantsiz baizik.
- Hurrengo saioan frogaren bat egingo dugu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: aurreko saioan ikusi genuen gaztelaniaz euskaraz baino baliabide gehiago ditugula hainbat egoeretan. Baina euskarak berak baditu baliabideak, edo, ez baditugu aurkitzen, guk ere sortu ditzakegu. Hizkuntzak aldatu eta garatu egiten dira eta guk ere parte hartu dezakegu horretan.
- Lehenengo ariketa: agurrak.
- Ideien ekaitza egingo dugu:
 - o 1.- Zein agur ezagutzen dituzte euskaraz?
 - o 2.- Onomatopeiak soilik hartuz... egin dezagun zerrenda bat: i eup, i ufi, apa, i up...
 - o 3.- Lehenengo multzokoak hartu eta errima jokoak bilatu: Aio pelai o! Aio arrai o! Egun on Ximon!...
 - o Jolas moduan bi egunetarako erronka proposatuko diegu: Egun batean onomatopeiazko ahalik eta esaldi gehien erabili behar dituzte. Bigarren egunean errimak erabiltzen ahalegindu behar dute.
- Bigarren ariketa: animoak.
 - o Taldeka banatuko ditugu.

ebete

- Talde bakoitzak euskaraz animoak emateko zein esamolde ezagutzen dituen zerrendatuko dute (adibidez, kirol partidu bat jokatzeko ari direnean, edo taldea animatzen ari direnean...)
 - Ondoren, talde osoan aipatuz zerrenda osatuko da.
 - Jarraian bost minutu izango dituzte esamolde berriak sortzeko. Daudenak hartu ditzakete oinarri baina gauzak aldatu, erantsi, kendu... Adibidez: adjektiboak erantsi edo aldatu, egoera egokitu edo eguneratu... (segi aurrera - segi jo ta su, hori da sasoi - hori bai indarra...) Gaztelaniazko esamoldeen ordezkioak sortu nahi badituzte ere, utziko diegu.
 - Animatuko al dira horietako batzuk erabiltzen hastera ere?
-
- Azken mezua: jolas moduan animoetan eta agurretan zentratu gara, baina beste edozein arlotan ere egin daiteke hau. Euskara hobetzeko eta garatzeko bide asko daude: irakurtzea, idaztea, entzutea... eta bat hizkuntzarekin jolastea da. Nahi duzuen moduan egin dezakezue.
 - Beste ideia hau ere eman daiteke: esamoldeek indarra eduki dezaten, erabili egin behar dira, gure egin behar ditugu. Euskarak baditu esamoldeak edo sortu ditzake, baina indarra edukiko dute jendeak erabiltzen baditu.

Euskararekin harremana

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

7/18 modulua

Kokatzea

DBH3koekin lehen hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskararekin duten harremanaren inguruan hitz egin nahi dugu beraiekin. Euskaldunak dira baina euskararekin harremana ahula dute hainbatek. Horretaz jabetzea nahi dugu eta gonbidatu nahi ditugu harreman hori indartzera.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntzekin dugun harremanaren inguruan hausnartzea: hizkuntza eta bizipen positiboak lotzea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: aurreko ikasturteetan egin ditugun saio batzuetan hitz egin dugu euskararen erabilerari buruz. Aipatu izan dizuegu institutuan dugun kezka eta nahia, zuek ere eman duzue iritzia horretaz... Guk zuek euskaraz gehiago egitea nahi dugu eta horretan lagundu nahi dizuegu, baina ez zaituztegu behartu nahi, euskararekin harremana ona izatea nahi baitugu. Horren inguruan hitz egingo dugu hurrengo bi saioetan.

Zaletasunak eta hizkuntza

- Hizkuntzei buruz baino, zaletasunei buruz hasiko gara hizketan. Ideien ekaitza egingo dugu. Zer gustatzen zaigu egitea? Kirola, parranda, ikastea, dantza... Ahalik eta zerrenda osatuena egingo dugu guztion artean.
- Gure zaletasunak horiek badira, berdin izango litzaiguke zein hizkuntzatan egin? Adibidez: lau hizkuntza baldin badakizkit, eta nire zaletasuna saskibaloia bada, horietako edozein hizkuntzatan gustura jokatuko nuke saskibaloira? Hau da, nik jokatu nahi dudan edo jokatzeke aukera dudan taldean frantsesez egiten badute eta nik hizkuntza hori baldin badakit, gustura jokatuko nuke?
- Seguruenik erantzun baiezkoa izango da. Hau da: gure gustuko jarduera bada berdin zaigu zein hizkuntzatan egin (hizkuntza hori baldin badakigu behintzat).

Bizipen positiboak eta hizkuntza

- Bizipen eta esperientzia positiboen inguruan hitz egin nahi dugu orain. Eranskinetan dagoen fitxa banatuko diegu eta bakoitzak bete behar du. Zein izan dira beraien bizipen positiboak? (nahi dituenak aipatu ditzake taldean edo, besterik gabe, norberak gorde ditzake). Hurrengo galdera egingo diegu: zein hizkuntzatan izan dira bizipen horiek? Jarduera hori zein hizkuntzatan izan da? Taldean aipatuko ditugu ondorioak: zenbat bizipen dira gaztelaniaz? Zenbat euskaraz? Zenbat beste hizkuntza batean?

ebete

- Bizipen gehienak gaztelaniaz badira, beste galdera bat egingo diegu: bururatzen al zaizkizue euskarazko bizipenak positiboak? Edo beste hizkuntza betean izandakoak? Erraz aurkitzen dituzten edo kostatzen zaien ikusiko dugu eta hori aipatuko diegu.
- Ondorioa: gehienek gaztelaniarekin harreman askoz handiagoa duzue. Eta euskararekin, batzuk behintzat, oso ahula.

Bigarren saioaren azalpena:

- Aurreko saioa ideiak eta ondorioak aipatuko ditugu

Hizkuntzarekin harremana zaintzea

- Irudikatu behar dute egoera bat: Errusiarrek Mendebaldea institutua erosi dute. Errusiarra ikastera derrigortzen dituzte ikasleak, baina Errusiarrez egiten den jardura bakarrik ikasleei gutxien gustatzen zaiena da: komonak garbitzea. Errusiarren esku dagoenetik komonak ikasleek garbitzen dituzte eta zuzendaria gainean egoten da tarte horretan errusiarrez egiten dutela frogatzeko.
- Irudikatu behar dute beste egoera bat: Errusiarrek Mendebaldea institutua erosi dute. Erraztasun handiak jartzen dituzte hizkuntza hori ikasteko: baita Errusian egonaldiak dohainik ere. Jardura berriak ekarri dituzte: guretzat oso gustukoak direnak eta lehen eskura ez genituenak. Benetan oso erakargarriak. Jardura horiek Errusieraz izango dira.
- Galdera: bide batetik edo bestetik hizkuntzarekin harremana berdina al da? Bietan ikasten dugu hizkuntza, baina batean bizipen oso positiboekin lotuko dut eta bestean negatiboekin. Horrek hizkuntza horrekiko eta kultura horrekiko nire jarreraren eragina izango al du?
- Beraz: ikusi dugu hainbatek euskararekin ez duzuela bizipen positibo askorik. Horrek eragina ba al du hizkuntza horrekiko eta kultura horrekiko ikuspegian eta jarreretan?

Bizipen positiboen bila

- Hizkuntza batekin, euskararekin kasu honetan, harremana handitu eta indartu nahi badut, bizipenak beharko ditut hizkuntza horretan.

ebete

- Ze aukera ditugu euskaraz bizipen positiboak izateko? Gaztelania nagusi den inguru batean bizi garenez, zein aukera ditut horretarako? Ideien ekaitza egingo dugu:
 - o Zein jarduera eskaintzen dira euskaraz Herrian? Eskola orduz kanpokoak, ekintza bereziak, kanpaldiak...
 - o Euskarazko ekitaldirik (gustukorik) eskaintzen al dute?
 - o Gustuko musika talderik ba al dugu?
 - o Interneten eta sare sozialetan gure gustuko gauzarik ba al da euskaraz?
- Zerrenda bat egingo dugu. Zerrenda ez bada oso luzea, osatzen saiatu gaitzke:
 - o Ikasleen Euskara Batzordea baldin badugu, batzordekoen zeregina izan daiteke zerrenda osatzea.
 - o Horrela ez bada, bi-hiru boluntariok egin dezakete hori.

Ondorioak eta erronka

- Ikusi dugu gustuko jarduerak edozein hizkuntzan egiteko prest gaudela.
- Era berean, hizkuntza bat ez badugu bizipen positiboekin lotzen, hizkuntza horrekiko jarreretan eta ikuspegian eragina izango du.
- Euskara badakigu eta gure burua euskalduntzat ere badaukagu, baina askok harreman txikia dugu hizkuntza horrekin (bizipen gutxi). Harreman hori handiagoa balitz, hori aberasgarria litzateke guretzako eta hizkuntza horrekin dugun harremanarentzako. Euskara bizipen positiboekin ere lotuko genuke.
- Proposamena: egin dugun zerrendatik gauza pare bat aukeratu eta saiatu datozen asteetan horiek egiten (euskarazko musika entzuten, kontzertu batera joaten, ekitaldi batera...).

Elkarrizketak sortzen

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

8/18 modulua

Kokatzea

DBH3koekin bigarren hiru hilekoan egiteko dinamikak dira.

Herrian gero eta euskaldun gehiago bizi dira, baina kaleko euskararen erabileran ez da hori nabarmen ikusten.

Horri buruz hausnartu nahi dugu ikasleekin. Batez ere ikustea nahi dugu erabilerak gora egiteko bidea euskaldunak hainbat egoeretan euskara erabiltzea dela: hainbat harreman euskaraz sortzen ahalegintzea, alegia. Horretarako zailtasunak zein diren ere aztertu nahi ditugu.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Herrian hainbat egoeretan eta hainbat pertsonekin euskaraz aritu daitezkeela ikustea.
- Harreman gehienak gaztelaniaz sortzearen arrazoiak aztertzea.

Lehengo saioaren azalpena:

- Aurreko saioetako datuak eta ondorioak hartuko ditugu abiapuntu moduan: erabilera eta ezagutza datuak, egindako erronka edo jolasen ondorioak...
- Ondoren, ikasleek dituzten ohituren inguruan hitz egingo dugu: institututik kanpo ba al dakigu norekin egin dezakegun euskaraz eta norekin ez? Saiatu izan al gara elkarrizketak euskaraz sortzen? Noiz? Norekin? Ez dakigunean elkarrizketa euskaraz izan daitekeen edo ez, nola egiten dugu? Zergatik?...
- Ondoren, jolas bat proposatuko diegu: astebeteko epean, lortu behar dute ohikoak diren egoeretan elkarrizketaren bat euskaraz sortzea.
- Non ibiltzen dira? Zerrenda bat egingo dugu arbelean: kiroldegian, kultur etxean, dendetan... Norekin sortu ditzakete elkarrizketak egoera horietan?
- Proposamena: egoera horietan elkarrizketak euskaraz sortzen ahalegintzea.
- Aste beteko epean frogatzea egin behar dute.
- Oharrak:
 - o Egunero gogorarazi behar zaie frogatzea. Giroa mantendu behar dugu.
 - o Seguruenik hainbatek ez dute frogatuko, baina batzuk frogatzea nahikoa da. Guztiei egingo diegu gonbitea baina jakinda guztiek ez dutela frogatuko.
 - o Frogatzea egiten dutenen bizipenak interesatzen zaizkigu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Frogaren inguruan galdetuko diegu: Nork egin du froga? Zein egoeretan? Lehen gaztelaniaz ziren egoeretan euskarazko elkarrizketak sortzeko gai izan al dira? Uste baino elkarrizketa gehiago euskaraz izan al daitezke? Non ez dute lortu? Nola ikusi dute beraien burua? Eroso sentitu al dira? ...
- Helburua da beraien ikustea euskaraz izan daitezkeen hainbat harreman gaztelaniaz sortzen dela: euskaldunok euskaraz hasteko ahalegina egingo bagenu hainbat harreman euskaraz sortuko liratekeela.
- Baina, bestalde, ikustea nahi dugu guk ere ulertzen dugula hori ez dela horren erraza: zailtasunak aztertu, zalantzak, beldurrak...
- Ondoren, gonbitea egingo diegu berriz ere horrelako saiakera eta frogak egin ditzaten. Aurrerago gaiari ere berriz heldu nahi geniokeela ere esango diegu, batez ere beraien tresnak eskaintzera begira: eroso sentitzeko hainbat egoeretan, adibidez.

Erraztasuna II

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

9/18 modulua

Kokatzea

Erabileran eragin handia duen faktoreetako bat hizkuntzekin dugu erraztasuna da. Institutuko ikasleen gehiengoak erraztasun handiagoa du gaztelaniaz (bereziki egoera informaletan) euskaraz baino.

Beraiek horretaz jabetzea bilatzen da saio hauetan eta ikustea ez dela hizkuntzaren muga, hiztunarena baizik.

Euskararekin jolastu daitekeela ikustea ere bilatuko da saioetan, norberak bere hizkuntza aberasteko bide hori izan baitaiteke.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntza erabiltzerako garaian euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berbera ez dugula ikustea.
- Euskararekin jolastea eta ohartzea norberak bere hizkera gartu dezakeela eta hizkuntzarekin jolastea izan daitekeela bideetako bat.

Lehenengo saioaren azalpena:

Gaia kokatzea: euskararen erabilerari eta euskararekiko jarrerei buruz

- *Piropoak eta hitz goxoak* izeneko fitxa banatuko diegu.
- Bi-hirunaka jarriko dira. Taldetxo bakoitzak 5 piropo berri proposatu beharko ditu.
- Piropo guztiak arbelean idatziko ditugu.
- Aukeraketa bat egingo dugu:
 - o Ikasle bakoitzak bere gustukoena diren bi piropoak aukeratuko ditu (ezin ditu aukeratu bere taldeak proposatutakoak).
 - o Bozketa bat egingo dugu.
 - o Kartulina handi batean idatziko ditugu boto gehien jasotako 10 piropoak.
- Urtxintxak eskolak, aisia.net web orriaren bidez antolatzen duen piropo lehiaketara bidaliko dira 10 horiek. Udaberrian izaten da lehiaketa hori. Ikasleei bidaltzeko asmoa dugula esango diegu .
- Hurrengo saioan txiste saio labur bat egingo dugula. Bi edo hiru prest egingo balira txiste bana kontatzeko, primeran.

Bigarren saioaren azalpena:

- Txiste kontaketa egingo dugu: 3.4 txiste kontatu ditzatela. Ikusi nahi dugu kontatzen dituzten txisteen oinarrian euskara edo gaztelania dagoen. Hau da, euskaraz kontatua ere askotan argi ikusten da gaztelaniazko txiste bat dela eta erreferentzia asko hizkuntza horri edo horretako elementuei egiten zaiela.
- Ez badituzte kontatu nahi, ezagutzen dituzten umoristei buruz eta haiek erabiltzen ituzten esamolde edo hitz jokoei buruz hitz egingo dugu. Kasu honetan, ikustea nahi dugu euskaraz ia ez dutela erreferentziarik.
- Ondoren, puntu nagusira pasako gara: Arrazoiei buruz hitz egitera. Horretarako ideia hau hartu dezakegu abiapuntu moduan:

ebete

- Ikusi dugu euskarak esamolde asko dituela eta nahi adina sortu daitezkeela.
 - Baina, zergatik egoera asko gaztelaniarekin identifikatzen ditugu? Hainbat egoeretan gaztelaniazko esamoldeak errazago bururatzen bazaizkigu, zergatik izan daiteke?...
-
- Hausnarketak ez du oso sakona izan beharrik. Lortu nahi den gauza bakarra da konturatzea askotan gaztelaniaz erraztasun handiagoa izaten dugula. Horraino iristen bagara, mezu hau ere eman daiteke: Zenbait gauzetan gaztelaniaz errazago aritzea ez da euskararen kontua, gurea baizik. Euskarak baditu nahi adina baliabide, eta sortu ere egin ditzakegu. Saiatu gaitezen horiek erabiltzen-sortzen.

 - Aukera bat izan daiteke erronka bat proposatzea saio honi jarraipena emateko: gaztelaniaz erabiltzen dituzten esamolde batzuk identifikatu, euskarazko batzuk aukeratu horien ordezeko eta aste pare batean horiek erabiltzera gonbidatu. Ahalik eta gehien zehaztu zein egoeretan erabili behar dituzten: kalean dabiltzanean, telefonoz ari direnean, agurtzerakoan... Erraza izan daiteke eta joko polita eman dezake.

PIROPOAK ETA HITZ GOXOAK

- Hemen piropo batzuk... Asmatu bost berri!

- Ordulariko orratz txikia izan nahi nuke orduoro zurekin elkartzeko
- Polboroa lehorra da, limoia garratza, mikatza da gatza eta zu eztia bezain goxoa
- Laztana, sorgindu nazazu
- Ona da natilla, ona da suflea, baina zu zeu zara nik nahi dudana postrea
- Eztia bezain gozoa da zure irrifarra
- Ene bihotzeko larrosa zara, maitea!
- Ibili gerizpetik bonboiak eguzkitan urtu egiten dira eta!
- Zuregatik bale bat hilko nuke txankletazoka!

- Hemen Hitz goxo batzuk... Asmatu bost berri!

- Sorgintxo
- Polita
- Pottolo
- Pinpirina
- Xarmanta
- Ederra
- Laztana
- Maitea
- Kuttuna
- Bihotza
- Txilipristina
- Zurrurutuna
- Pitxitxu
- Pitxina

Euskara eta balioak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

10/18 modulua

Kokatzea

DBH4koekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskara balio indartsuekin lotzea nahi dugu, ez soilik bertako hizkuntza eta hizkuntza zaharra izatearekin. Bi saio hauetan euskaraz zer ari den sortzen ikustea bilatuko da.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Euskara balio moderno eta indartsuekin ere lotzea.
- Euskaraz edozer egin daitekeela ikustea, eta, are gehiago, gaur egun euskaraz gauza berritzaile asko egiten direla jabetzea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: euskara, gaztelania eta ingelesa ikasten ari gara (ikasle batzuk beste hizkuntzaren bat ere bai, agian). Baina maila berean jartzen al ditugu hizkuntza horiek? Balio bera ematen al diegu?
- Hizkuntzak eta balioak ariketa egingo dugu. Irudiak jarriko dizkiegu eta irudi hori nagusiki zein hizkuntzekin lotzen dituzten galdetuko diegu:
 - o Diskoteka bat
 - o Rok kontzertu bat
 - o Baserri bat
 - o Frontoi bat
 - o Folk kontzertu bat
 - o Fabrika bat
 - o Bulego bat
 - o Institutua
 - o Telefono mugikor bat
 - o Ordenagailu bat
 - o Interneten edo sare sozialen irudi bat
- Erantzun behar dute: batez ere hizkuntza honekin eta zerbait beste hizkuntza honekin...
- Amaieran ikusiko dugu hizkuntza bakoitza zein irudirekin lotu duten eta horri buruz hitz egingo dugu. Zein lotu dituzte gaztelaniarekin? Eta ingelesarekin? Eta euskararekin?
- Seguruena euskara balio tradizionalekin lotuko dute batez ere (eta zertxobait beste balio batzuekin). Zergatik gertatzen zaigu hori? Euskarak ez al du balio gauza modernoetarako? Zer ari da gertatzen gaur egun euskarazko kulturari? Zer gauza berritzaile ari dira sortzen euskaraz?
- Galdera horiek egingo dizkiegu eta ideien ekaitza moduko bat eginaz zerrenda osatzen saiatuko gara: musikan, dantzan, telebistan, zineman, interneten, sare sozialetan, antzerkian... zer ari da sortzen euskaraz?

Bigarren saioaren azalpena (A aukera)

- Ikasleen Batzordekoek ikerketa lana egingo dute: zer ari da sortzen euskaraz?
- Bigarren saioan hori aurkeztuko diete beste ikasleei, eta, ahal dela behintzat, modu erakargarrian: bideoekin, musikarekin...
- Ikustea nahi dugu, gauza asko eta oso modernoak egiten direla euskaraz ere:
 - o Bertsolaritzan zer nolako nahasketak eta berrikuntzak egiten diren (bertsolaritza irudi modernoarekin lotzea garrantzitsua da: gazte asko dabilen giro bat da eta hizkuntza aldetik oso indartsua)
 - o Musikan, antzerkian, sare sozialetan...
- Horren inguruko elkarrizketak sortuko ditugu ikasleekin: ezagutzen al zituzten berrikuntza horiek? Zer iruditu zaie? Hainbatek zergatik ez zituzten ezagutzen? Zergatik jarraitzen dugu euskara batez ere balio tradizionalekin lotzen? Eta abar

Bigarren saioaren azalpena (B aukera)

- Institututik kanpoko pertsona bat ekarriko dugu: beraientzat erreferente izan daitekeen norbait. Hau da:
 - o A aukera: pertsonai ezagun bat, beraientzat erakargarria dena, eta euskal kulturari gauza berezi edo balio modernoekin lotu daitekeena egiten duena (rap musika, bertsolaritzako gauza berriak, rok musika, aktore ezagun bat...).
 - o B aukera: herriko gazte bat. Beraiek baino helduxeagoa baina gertuko erreferentea izan daitekeena (antzeko gustuak eta balioak izan ditzakeena). Euskararekiko aktiboa den norbait izan behar du: euskarazko harremanak badituena, euskal kultura kontsumitzen duena...
- Erreferente horrekin elkarrizketa bat egingo dugu:
 - o Bere ibilbidea kontatu dezake
 - o Euskaraz zer gauza ari diren sortzen aurkeztu
 - o Gonbidatu gauza horiek ezagutzera ea horietan parte hartzera
 - o ...

Nolakoa izan nahi dut?

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

11 / 18 modulua

Kokatzea

DBH4koekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskaldun izateari buruz eta euskaldun izateak dituen ezaugarriei buruz hitz egingo da saioetan zehar: zerk bereziten gaituen, zertan garen berdinak, nolakoak izan nahi genukeen...

Oinarrizko ideia honakoa da: euskara jakiteak eta erabiltzeak ezaugarri batzuk ematen dizkigu mundu globalizatuan, euskaraz egiten den (egiten duen) guztia euskaldun bihurtzen da.

Oinarrizko ideia horretara iritsi nahi da eta ikasleak gonbidatu nahi ditugu ideia horrekin bat egiten badute norabide horretan bidea egitera: “nolako euskalduna izan nahi dut?” galdera erantzutera gonbidatuko ditugu, eta, are gehiago, “merezi al du norabide horretan aritzeak?” galderari ere erantzun beharko diote.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Euskaldunon (eta norberaren) identitatearen inguruan hausnartzea. Munduan (eta Euskal Herrian bertan) hainbat kultura baldin badaude, zein da gurea (nirea)? Zein ezaugarri ditu? Nolako izatea nahi nuke?
- Euskaldunon ezaugarriez aritu bagara, eta gure aldetik nolakoak izan nahi genukeen zehaztu badugu... Merezki al du horretan ahalegintzeak? Horretaz hausnartuko dugu ikasleekin.

Lehenengo saioaren azalpena:

Hiru dinamika egingo ditugu saioan zehar:

- *Nongoak gara?* dinamikarekin besteengandik zerk bereziten gaituen eta zertan garan berdinak ikusi nahi da.
- *Nongoa izan nahi dut?* dinamikarekin leku batekoa izan zein bestekoa izan axola ote zaigun aztertzeko dinamika izango da.
- *Nolako izan nahi dut?* Abiapuntutzat hartuz euskalduna izan nahi dudala (agian guztien kasuan ez da horrela izango), nolako izan nahi genuke? Zein ezaugarri behar lituzke?

Nongoak gara?

- Leku batekoa izatea edo bestekoa izatea axola zaigun ikusi nahi dugu, eta zerk bereizten gaituen aztertu.
- Taldetxotan banatuko ditugu eta talde bakoitza herrialde batean kokatuko dugu: Euskaldunak, Japoniarrak, Estatu Batuarrek, Australiarrak, Nigeriarrak...
- Globalizazioaren ondorioz hainbat elementu komunak dira kultura guztientzat (edo ia). Horri buruz aritu nahi dugu. Taldetxo bakoitzari galdetegi bat pasako diogu (*hurrengo orrian agertzen da galdetegi zehatza*), galdetegi horretan denentzat nahiko komunak izan daitezkeen elementu batzuk jarriko ditugu (musikarekin, kirolarekin, telebistarekin eta abar zerikusia dutenak):

- Zure kulturaren edo bizimoduan ba al duzu zerikusirik ondoko gauza hauekin? Olinpiadak - Munduko futbol txapelketa - Madona - Mozart-Operación triunfo- You tube- Facebook - Ferrari
- Taldetxo bakoitzak zer jarri duen ikusiko dugu, eta horretaz hitz egingo dugu.
- Ondoren galdera izango da: Eta zer da ezberdina bakoitzean? Zer dute Japoniarrek, Euskaldunek, Estatu Batuarrek... elkarrengandik ezberdina?
- Seguruenik, aterako den gauzetako bat folkloreakin lotutakoa izango da (dantza, herri musika...). Hori zalantzan ere jarri dezakegu: Horrek bereizten gaitu, baina benetan zein garrantzia dute nire bizitzan? Ez badira oso garrantzitsuak. zer inporta zait leku batekoa zein bestekoa izatea?
- Horretaz hitz egingo dugu. Ez dugu ondorio garbietara iritsi behar, hausnartzea lortu nahi da.

Nongoa izan nahi dut?

Nongoak gara? dinamikaren jarraipen da. Elementu komun asko ditugunez, berdin al zait Estatu Batuarra, zein Japoniarra, zein Euskal Herritarra izan? Horri buruz hitz egingo dugu. Sentimenduez eta intuizioez aritzeko ere eskatuko diegu, ez soilik arrazoiez.

Nolakoa izan nahi dut?

Abiapuntu moduan hartuko dugu euskaldunak izan nahi dugula (seguruenik *Nongoa izan nahi dut?* dinamikak horretara eramango gaitu).

Taldeka banatuko ditugu berriz ere, eta galdera honi erantzun beharko diote:

- Euskalduna izan nahi badut, nolakoa izan nahi dut? (*eranskinetako fitxa banatu dezakegu lagungarri izango zaiela iruditzen bazaigu*).
- Hamar minutu izango dituzte galdera hori erantzuteko. Ondoren, taldean komentatuko ditugu bakoitzak jarritakoak.
- Definizio ezberdinak hartuko ditugu eztabaida sortzeko eta jarraitzeko abiapuntu moduan. Helburua ez da norberak bere burua erabat definitzea, identitateaz hausnartzea baizik.

Bigarren saioaren azalpena:

Saio osorako dinamika bakarra erabiliko dugu: *Epaiketaren dinamika*. Nolakoak izan nahi genukeen definitu dugunez, dinamika honen bidez horretara iristeko zailtasunak ikusi nahi dira, baina baita horretan ahalegintzeko arrazoiak ere.

Bi talde egingo ditugu. Talde bakoitzari azken saioetako laburpena emango diogu: Nolako euskaldunak izan nahi dugu? Zeintzuk dira zailtasunak horretarako?

Talde batek defendatu beharko du merezi duela norabide horretan ahalegintzeak: gusturago sentituko garela, ez dela zaila...

Beste taldeak defendatu beharko du ez duela merezi: gauden bezala ere ederki gaudela eta ahalegina handiegia dela lortuko dugunarentzat edo ahalegina horrenbestekoa denez ez dugula lortuko.

Epaiketa hasi aurretik, talde bakoitzak argumentazioak eta aurkezteko modua lantzeko tarte izango du (30'). Irakasleek ere parte hartuko dezakete talde horietan, argumentazioetan laguntzeko.

Irakasleek epaile rola hartuko dute eta talde bakoitzak abokatu bat jarri beharko du. Beraien argumentazioak prestatu beharko dituzte eta argumentazio horien osagarri testigu batzuk ere aukeratuko dituzte eta horiei galderak egin epaiketan zehar.

Saioaren amaieran, epaileek beraien ondorioak azalduko dituzte.

Oharrak:

- Dinamikaren helburua da alde onak eta txarrak ikustea, zailtasunak eta abantailak... Galderak hori bideratu behar du: erabat aldekoak eta erabat kontrakoak bereiztean, muturreko argumentazioak landu behar direnez, bietakoak ikusi ahal izango dira, eta, garrantzitsuenak, beraien landutakoak izango dira.
- Dinamikarako galdera ondo pentsatu behar da. Beste saioetako ideia batzuk laburbilduta aurkeztu behar zaizkie dinamika ondo bideratzeko.
- Bigarren saioko dinamika luzea da. Ordu bete baino bi ordu inguru erabiltzea hobea litzateke.
- Mozorro batzuk eskura jartzea lagungarria izan daiteke bigarren saioko dinamikan.

Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?

Zuek _____ herrialdekoak zarete.

Saiatu zaitezte leku hartan kokatzen eta hangoak bazinete bezala erantzuten. Zalantzak izan ditzakezue, baina dauzkazuen erreferentzien arabera erantzun.

	Bai	Ez
Parte hartzen al duzue olinpiadetan?		
Zuen kirolen artean futbola ere ba al dago?		
Zuen herrialdeko komunikabideek egin al zioten jarraipenik munduko futbol txapelketari?		
Madona abeslaria ezagutzen al duzue?		
Zuen herrialdeko telebistetan botatzen al dituzte Madonaren bideoklipak?		
Mozart musikaria nor den ba al dakizue?		
Musika klasiko kontzerturik izaten al da zuen herrialdean?		
Batukada edo antzeko perkusio talderik ba al da zuen herrialdean?		
<i>Operación triunfo</i> zer den ba al dakizue? (dena delako hizkuntzan)		
Zuen herrialdean ba al da <i>Operación triunfo</i> moduko programarik?		
You tubeko bideoak ikusten al dituzue?		
Facebook erabiltzen al duzue?		
Ferrari kotxe marka ezagutzen al duzue?		

Nolakoa izan nahi dut?

Euskalduna izan nahi dut, baina euskaldun izateko modu asko ere egon daitezke. Nolakoa izan nahi nuke? Idatz ezazue definizio bat.

Nolakoa izan nahi dut?

Saioan zehar hitz egindakoak erabiltzea gomendatzen dizuegu definizioa idazteko, baina lagungarri bazaizue, ondoko galdera hauek erantzunez definizioa osatzeko ideiak atera ditzakezue:

- Nolakoa harremana nahi dugu beste kulturekin? Batere ez, irekia, handia, etengabekoa, azalekoa...
- Nola ikusi nahi dugu gure burua? Besteak baino hobea, gure buruarekin gustura egotea, besteengandik oso erraz ezberdinduko dena...
- Nolakoa harremana nahi dugu hizkuntzekin? Elebakarra izan nahi dugu eleaniztunak (zenbat hizkuntza?)...
- Nolakoa harremana nahi nuke euskararekin? Ahal dudan harreman guztietan euskara erabili nahi genuke, ez zaigu axola...
- ...

Zailtasunak: lotsa eta beldurra

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

12/18 modulua

Kokatzea

DBH4koekin hirugarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskara gehiago erabiltzeko gogoia izan da ere, hainbat egoeretan lotsa edo beldurra atzera egitera eramaten gaitu. Gaztelaniaz eroso sentituko gara, eta, euskaraz egin nahi izan da ere, ez dakigu eroso sentituko garen.

Ikasleak horretaz ohartzea nahi dugu eta modulu horretan horri buruz hitz egitea bilatuko da.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Erabilera ohituretan testuinguruak eta gure pertzepzioek eragin handia dutela ikustea.
- Askok bi hizkuntza jakin arren, harreman asko gaztelaniaz sortzea ez dela besterik gabe ematen den egoera bat ikustea. Hau da, euskaraz egin nahi izanda ere gaztelania nagusi den testuinguru batea ohikoa izaten dela hizkuntza horretara jotzea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaian kokatzea: herriko euskararen ezagutza eta erabilera datuak jarriko dizkiegu. Ikusiko dugu euskararen ezagutza etengabe goraka doala (berezi haurren eta gazten artean), baina erabilerak ez du aurrera egiten. Arrazoen inguruan hausnartu nahi dugula esango diegu. Gizarte hau ahalegin handia egiten ari da gero eta elebidunagoa izateko, baina praktika, hori ez da erabilerara iristen.
- Zein izan daitezke arrazoiak? Nola ikusten dute hori gure ikasleek? Horren inguruan hitz egingo dugu. Ez diogu denbora asko emango.
- Hainbat arrazoi egon daitezke horren atzean, baina batean zentratu nahi dugu. Erosotasunari buruz, lotsari buruz eta beldurrei buruz hitz egin nahi dugula esango diegu.
- Gauzatxo bat antzeztu nahi dugula esango diegu eta bi boluntario eskatuko ditugu. Kanpora aterako ditugu eta egoera aurkeztu diegu. Odnoren gelan sartu eta antzeztu egingo dute. Horri buruz hitz egingo dugu ikasleekin: zer iruditu zaie? Zer gehiago osatu daiteke? Zerbait aldatuko lukete?
 - o Arropa erostera zoaz Zarara. Zure taila ez duzu ikusten eta dendariari galdetu nahi diozu ba ote duten. Baduela esaten dizu baina orain ezin duela bila joan. Antzeztu ezazue egoera hori.
 - o Kaletik zoaz eta pertsona bati galdetzen diozu kale bat non ote dagoen. Honek esaten dizu kale hori ez dagoela Herrian. Zuk badakizu baietz baina ez dakizu non dagoen. Hori antzeztu.
 - o Telefonoz deitu behar duzu telefono konpainiara. Oferta berriak omen dituzte eta ezagutu nahi dituzu. Ez zaizu proposamena gustatzen. Antzeztu egoera hori.

- Antzezpen bakoitzaren ondoren horri buruz hitz egingo dugu: ondo egin dute? Zer osatu zitekeen? Tonua egokia izan da? Erregistroa?...
- Ondoren galdera zehatza egingo diegu: baina egoera horiek euskaraz sortuko genituzke? Are gehiago: zuetako batzuk erabakitzen duzue baietz, euskaraz egin nahi duzuela. Erraza izango al da? Eroso sentituko al zinatekete? Sortuko al litzaizueke beldurrik edo zalantzarik?
- Proposamena: datozen bi asteetan, saiatu inoiz euskaraz egin ez duten leku batean euskaraz egiten. Adibidez: denda batean, taberna batean, komertzio batean, kaleko pertsona bati zuzenduta... Garrantzitsua da zuek ez jakitea aurretik dendariak edo pertsona horrek euskaraz dakien edo ez.
- Saiatuko gara ikasleetako batzuk behintzat froga hori egiteko konpromisoa hartu dezaten.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Egindako frogei buruz hitz egingo dugu: zein froga egin dituzte? Zeintzuk frogatu dute? Nolakoak izan dira egoera?
- Frogen ondorioak aztertuko ditugu: lortu al dute euskaraz egitea? Nolakoak izan da erantzuna? Zein sentazio edo emozio izan ditugu elkarrizketa sortu aurretik? Seguru al geunden? Ba al genuen zalantzarik? Nolakoak izan da erantzuna? Espero genuen modukoa?
- Azken batean, ikustea nahi dugu, beldurrak eta zalantzak izaten ditugula horrelako egoeretan: erantzun txar bat jasotzekoa, eroso ez sentitzekoa...
- Ondorio nagusia: badakigu gaztelaniaz egin dezakegula edozein egoeretan eta horrek segurtasuna ematen du. Euskaraz uste baino askoz leku gehiagotan eta egoera gehiagotan egin dezakegu, baina zalantzak eta segurtasun falta izaten ditugu egoera horietan. Euskarak aurrera egingo badu hainbat egoeretan harremanak euskaraz sortzen ahaleginduko den jendea behar du. Ez diegu eskatzen beraiek izateko (nahi badute bai, noski), baina argi izan behar dute ahalegina egiten duen jenderik ez badago erabilerak aurrera egitea oso zaila dela. Aldiz, ahalegina egiten bada (tarteka eta poliki poliki bada ere) gero eta harreman gehiago euskaraz izango dira.
- Proposamena: beste egoera batzuetan ere frogatzea. Beraientzat nahiko ohikoak diren egoerak zerrendatuko ditugu eta horietan zein harreman izaten dituzten: gizarte etxeak, kultur etxeak, dendak... Eta horietan entrenatzaileak, harrerakoak... Froga gehiago egitera gonbidatuko ditugu: jolas modua eta beraien burua zer moduz ikusten duten aztertzeke helburuarekin. Lagunartean ere egin ditzakete ahalegin horiek!

Aurreiritziak eta hizkuntzen funtzioak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

13/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko lehenengo mailakoekin lehenengo hiru hilekoan egiteko saioa.

Hizkuntzei buruz hitz egiterakoan aurreiritzi asko erabiltzen dira eta euskarari buruzko aurreiritziak ere askotan entzuten ditugu. Horiei buruz aritu nahi dugu ikasleekin.

Hizkuntza minorizatuak zer diren eta minoritariaok zer diren ere aztertuko dugu.

Azken batean, gauza bat da minorizatua eta minoritarioa izatea eta oso bestelakoa agertzen diren beste aurreiritzi batzuk onartzea (zaila, tradizionala soilik...).

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Ikasleek euskara hizkuntza guztien artean kokatzeko irizpideak izatea. Hau da: aurreiritziak haustea eta aurreiritzien aurkako argumentuak barneratzea, eta, hizkuntzek betetzen dituzten funtzioez hitz egitea.
- Ikasleek euskararekiko jarrera positiboak izan ditzaten, gutxiengo egoeran dagoela ikustea baina horrek ez duela beste hizkuntza batzuk baino hobea edo txarragoa egiten ere ikustea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: oraingoan ere euskararen erabileraren eta jarreraren inguruan aritu nahi dugu, baina soziolinguistikako kontzeptu pare batera hurbildu nahi dugula aipatu diegu. Hizkuntza normalizatu minorizatuak eta hizkuntza maioritario minoritarioak hain zuzen ere.
- Aurreiritzien inguruan hizketan hasiko gara. Horretarako, *Hizkuntzen balioa* fitxa banatuko diegu eta taldeka osatu beharko dute. Ondoren, talde osoan aipatuko ditugu taldeka esan direnak. Ados jartzen ahaleginduko gara.
- Fitxa horretan galdetzen da zeintzuk diren hizkuntza modernoak, zeintzuk zailak, eta abar. Horri buruz hitz egingo dugu: benetan ba al daude hizkuntza zailak eta errazak? Modernoak eta tradizionalak? Guztiek balio dute guztirako: folklorea egitetik interneten nabigatzera ... Dena dira modernoak eta tradizionalak. Denak dira zailak eta errazak: norberaren abiapuntua eta hizkuntza horrekin duen harremanaren arabera errazagoa edo zailagoa izango da. Hau da, gaztelania duen batentzat errazagoa da kataluniera ikastea euskararen aldean (gertuago duelako) baina Japoniar batentzat bai euskara bai gaztelania oso zailak dira. Era berean, Txinatarra ikasteak oso zaila ematen du, baina hizkuntza hori txikitatik ikasi duten 600 milioi haurrentzat oso erraza izan da.
- Lehenengo mezua emango diegu: kontuz aurreiritziekin. Hizkuntza guztiek balio bera dute, hiztunen joera izaten batzuei balio gehiago edo gutxiago eman nahi izateko eta hori argi izan behar dugu joku horretan ez sartzeko.

- Baina maila berean al daude Ingelesa, Txinera, gaztelania, euskara....? Nondik begiratzten den. Hizkuntza moduan bai, baina soziolinguistikoki ez.
- Hizkuntzen funtzioei buruz hitz egingo dugu. Horretarako galderak egingo dizkiegu ikasleei:
 - o *1.- Hizkuntza hori pentsatzeko erabiltzen duten pertsonak ba al daude?*
 - o *2.- Ba al daude familiak eguneroko bizitzan hizkuntza horretan aritzen direnak?*
 - o *3.- Ba al daude hizkuntza horretan lan egiten duten enpresak?*
 - o *4.- Ba al daude herri mailako erakundeak hizkuntza horretan aritzen direnak? Udalak? Ikastetxeak? Elkarteak?*
 - o *5.- Ba al daude udalerriz gaindiko erakundeak hizkuntza horretan aritzen direnak? Foru Aldundiak? Komunikabideak?*
 - o *6.- Hizkuntza hori herrialde batean baino gehiagotan al da ofiziala?*
 - o *7.- Hizkuntza hori hizkuntza ezberdinak dituzten herrialdeen arteko komunikazio hizkuntza moduan erabiltzen al da?*
- Zalantzak sortu daitezke galdera hauen inguruan, baita eztabaidak ere. Eskatuko diegu hurrengo saiora bitarte 3. Funtziotik aurrera euskaraz aritzen diren enpresa, udal eta bestelako erakundeen zerrenda bat egiteko. (Ikasleen euskara batzorde bat osatuta baldin badugu, azterketa hori batzordekoek egin dezakete).

Bigarren saioaren azalpena:

- Aurreko saioko galderekin hasiko gara berriz ere. Egin duten bilaketaren berri galdetuko diegu: euskaraz funtzionatzen duten enpresak Herrian eta Euskal Herrian? Udalak?...
- Eranskinetan agertzen den taula jarriko diegu arbelean. Ondorioa honakoa da: hizkuntza bat normalizatua dagoela esaten da lehenengo bost funtzioak arazorik gabe betetzen baditu. Euskarak, noski, ez ditu betetzen. Baina bai Gaztelaniak, Ingelesak... Beraz, euskara hizkuntza minorizatua da (ez ditu hizkuntzaren funtzioak ondo betetzen). Hizkuntza maiorizatuak dira azken bi funtzioak ere betetzen dituztenak, besteak beste Gaztelania eta Ingelesa.

ebete

- Horri buruz hausnartu dezakegu: zergatik iritsi dira gaztelania eta ingelesa maiorizatuak izatera? Eta euskara eta munduko hizkuntza gehienak minorizatuak izatera? Iritsi al daiteke euskara hizkuntza normalizatua izatera?...
- Ondoren, euskararen ezagutza datuak emango dizkiegu: hiztun kopurua. Gaztelaniarekin, Txinerarekin... konparatuko dugu. Euskara hizkuntza minoritariao da: hiztun kopurua txikia da hizkuntza maioritarioen aldean.
- Beraz: euskara minorizatua eta minoritariao da. Baina horrek hobe edo txarragoa egiten du besteen aldean? Ez bat ez bestea, euskararen egoera soziolinguistikoaren azalpen bat da, diagnosi moduko bat, baina ez du esan nahi ez hizkuntza gutxiago balio duenik, ez zailagoa denik ez beste antzeko ezer.
- Eztabaida osatze aldera, gaztelania eta txinerari buruzko aritukulu bat aurkeztuko diegu. Bi hizkuntzak mairozatuak eta maioritariaok dira, baina lekuen arabera ez dute balio bera. Horrek esan nahi du gaztelania txinera baino gutxiago dela? Ez. Beraz, euskara ere beste hizkuntzen pare dagoela argi dago.
- Azken mezua emango diegu: kontuz hizkuntzekiko aurreiritziekin. Euskara bertako hizkuntza da eta hiztun kopurua ez da handia eta zailtasunak ditu funtzio guztiak betetzeko (gaztelania eta frantsesa direlako hizkuntza maiorizatuak Euskal Herrian ere). Baina iritsi daiteke funtzioak ondo betetzera hiztun kopurua oso handia izan gabe ere, eta hor, neurri handi batean, hiztunon esku dago.

Eranskinak:

Hizkuntzen balioa

Zein mezu jasotzen ditugu gizartetik hizkuntzei buruz?

Zein mezu jasotzen ditugu gizartetik hizkuntza hauei buruz? Zein hizkuntza irudikatzen ditugu hitz hauetatik gertuago? Kokatu lau hizkuntza hauek ordenean: *Euskara, gaztelania, ingelesa* eta *txinera*.

	1	2	3	4
Moderno				
Tradizionala				
Beharrezkoa				
Zailena				
Lanerako bideak/aukerak irekitzen dituena				
Zaharrena				
Etorkizuneko hizkuntza				

Hizkuntzen funtzioak

Giza-mintzaira	Funtzio internazionala
Zibilizazio mintzaira	Zibilizazio funtzioa
Nazio hizkuntza	Funtzio nazionala
Bertakoa	Funtzio lokala
Lanbide kodigoa	Funtzio profesionala
Barne-hizkera	Funtzio familiarra
Pentsabidea	Identitate funtzioa

Euskararen datuak

- *Euskararen ezagutza (2001):*
 - *Euskaldunak* *28% (780.000)*
 - *la euskaldunak* *19% (550.000)*
 - *Erdaldunak* *53% (1.500.000)*

- Datuak berrizteko Soziolinguistika klusterreko web orria kontsultatu daiteke (klusterra.org)
- Herriko datauk ere bertan aurkitu daitezke edo Udaleko Euskara Zerbitzura ere jo daiteke.

Ingelesa-Gaztelania-Txinera

(...) Muchos ciudadanos de Estados Unidos se embarcan en una apresurada y ambiciosa carrera para que sus hijos aprendan chino. Pero esa premura falla en algo que nos es bastante más cercano: la enorme importancia de que nuestros hijos aprendan español. Puede que el español no sea tan prestigioso como el mandarín, pero es una presencia cotidiana en Estados Unidos.

(...) China será probablemente la mayor economía del mundo. El estudio del chino abre muchísimas oportunidades. Pero no olvidéis algo que probablemente será fundamental en su vida: ¡el idioma más importante es el español!

The New York Times Nicholas D.Kristof 29-12-2010
El País 02-01-2011

Lagunarterako tresnak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

14/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko lehenengo mailakoekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Lagunarteko harremanetan euskara gehiago erabiltzera gonbidatu nahi ditugu eta tresna batzuk eskaini nahi dizkiegu hori erraztu dezaketenak.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

Ikasleen euskararen erabileran eragitera begira:

- Lagunartean euskara gehiago erabili nahi izanez gero, lagungarriak izan daitezkeen tresnak aurkeztea.
- Gehiago erabiltzera gonbidatzea eta horren inguruan froga bat egitea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: aurreko saio batzuetan euskararen erabilera buruz hitz egin dugu eta gehiago erabiltzeko gogoia erakutsi izan duzue hainbatek. Zailtasunei buruz ere aritu izan gara: erraztasuna, ohiturak... Gai horrekin jarraitu nahi dugu saio hauetan.
- Zer egin dezakegu euskara gehiago erabili nahiko bagenu? Hau da: lagun kuadrillan adosten dugu baietz, gehiago erabili nahi dugula. Baina jabetzen gara ez dela horren erraza. Zer egin dezakegu? Zer izan daiteke lagungarria?
- Ideien ekaitza egingo dugu. Ideiak emango dituzte eta horiei buruz hitz egingo dugu. Erabilgarria al da? lagunduko al luke?
- Guk ere proposatuko dizkiegu batzuk:
 - o Helburu txiki batzuk adostu ditzakegu: egun batean froga bat egin, egunero euskaraz hasteko konpromisoa hartu...
 - o Lortutakoa azpimarratu zailtasunen aurrean: lortzen badugu arratsalde batean euskaraz aritzea, azpimarratu eta baloratu hori eta ez gero gauean gaztelania egiten jarraitu dugula. Lorpena hor dago.
 - o Tresna batzuk adostu euskarara itzultzeko: euskaraz arituko garela erabaki dugun tarte batean gaztelaniara jotzen badugu, tresnaren bat behar dugu euskarara itzultzeko, taldeko edozeinek erabili dezakeena. Adibidez: hitz edo esaldi klabe bat, bizkarreko bat ematea ondokoari...
- Ideia bat azpimarratuko diegu: ohiturak aldatzea ez da erraza baina... erabilera etortzen da erabileratik eta ez soilik horri buruz hitz egitetik. Eta, aldaketa eman dutenek esaten dutenez, hasieran arraroa egiten da baina uste bezain zaila ez da izaten.
- Proposamena: guk nahi genuke beraiek euskara asko erabiltzea baina beraien nahia eta erabakia da hori. Froga bat egitea proposatzen diegu. Nor dago prest? Prest daudenekin erronka bat adostuko dugu eta prozedura ere bai. Adibidez: aste osoan institutuan dauden tartean beraien artean

euskaraz aritzea... Parte hartzen ez dutenei eskatuko diegu laguntzeko: zorientzeko, animatzeko, beraiek ere tarteka parte hartzeko... Lortuko ote dute?

Bigarren saioaren azalpena:

- Frogari buruz hitz egingo dugu: lortu al dute? Kosta al zaie? Zer moduz ikusi dute beraien burua? Nola jokatu dute gaztelaniara pasa direnean? Pozik al daude? Besteek lagundu al diete?
- Aurrera begirako hitz egingo dugu: prest ikusten dute beraien burua frogara gehiago egiteko eta bide horretan saiatzeko? Zer beharko lukete?
- Aukeran, primerakoa litzateke Herrian euskaraz egiten duen gazte kuadrilla bateko kide pare bat eramatea erreferente moduan: nola jokutzen dute? Beti egin dute euskaraz? nola egiten dute beraien artean euskaraz ez dakitenak edo egiten ez dutenak daudenean? Eta abar.
- Erreferenterik ez bada eramaten, saioa oso sinplea izango da baina frogara egin badute mamitsua ere izan daiteke.
- Erreferenteekin egiten bada, saioa oraindik aberatsagoa izango da.

Erabileran eragiten duten faktoreak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

15/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko lehenengo mailakoekin hirugarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruz hausnartu nahi dugu ikasleekin. Askotan norberaren hizkuntza-ohiturak normaltzat hartzen dituzte, baina ohitura horiek testuinguru jakin batean garatzen dira. Hau da, euskara edo gaztelania erabili ez da soilik norberaren aukera edo bat batean sortzen den zerbait.

Horri buruz hausnartu nahi dugu eta ikustea nahi dugu bi hizkuntza ofizial dituen gizarte batean bizi arren eta euskaraz ikasi arren, beraien arteko harremana batez ere gaztelaniaz izatearen atzean hainbat arrazoi daudela, gehienak euskararen kontrakoak, eta horretaz kontziente izan behar dutela.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Hizkuntza-ohituren atzean hainbat arrazoi daudela ikustea, eta, beraz, ohitura batzuk zein beste batzuk izan, horiengan hainbat faktorek eragiten dutela kontziente izatea.

Lehengo saioaren azalpena:

- Herriko eta ezagutza datuak emango dizkiegu, eta bereziki gazteen arloan zentratuko gara: ezagutza altua izanda, zergatik erabilera ez da horren altua?
- Beraiekin arrazoiengatik hitz egingo dugu.
- Horretarako ideien ekaitza egingo dugu: zein arrazoi daude euskara edo gaztelania aukeratzeko garaian? Zeintzuk dira faktoreak?
- Beharrezkoa bada, adibideak eta ideiak proposatuz lagunduko diegu. Lagungarria izango da Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako Euskararen GPSa gidaliburua.
- Guztion artean faktoreen zerrenda bi multzotan banatuko dugu: barne faktoreak (norberari dagozkionak) eta kanpo faktoreak (norberari ez dagozkionak). Adibidez: ohitura izan daiteke aipatu dezaketen faktoreetako bat (gaztelaniaz egiteko ohitura) baina hori barne faktore bat da, norberak aldatu dezake. Erdaldunek euskara ez jakitea izan daiteke beste faktore bat, eta hori kanpo faktore bat da (norberak ezin du eragin).

Bigarren saioaren azalpena:

- Faktoreak errepasatuko ditugu eta bi multzoei buruz hizketan hasiko gara (kanpo faktoreak eta barne faktoreak).
- Zeintzuk dira garrantzitsuagoak? Taldeka banatuko ditugu eta argumentuak landu beharko dituzte. Batzuk defendatu behar dute garrantzitsuenak barne faktoreak direla eta beste batzuk kanpo faktoreak. Hau da, gazteen euskararen erabileran eragin gehiago dutela kanpokoek edo barrukoek.
- Taldean argumentuak emango dira eta horri buruz hitz egingo dugu.
- Ondorio nagusia horrelako zerbait izan daiteke: faktore guztiek dute eragina, baina kanpo faktoreetan norbanakoaren eragina txikia den arren (legeak, euskara ez dakitenekin harremana...) baren faktoreetan norberak eragin handia du (ingurukoekin harremana, norberaren euskara hobetzea...).
- Nahi izanez gero, eta denbora ematen badu, zerrendatu diren faktore guztietatik hiru garrantzitsuenak zein diren ere zehazten ahalegindu daitezke: bikoteka banatuko dira eta bikote bakoitzak hiru aukeratuko ditu. Bozketa egingo da eta boto gehien zeintzuk dituzten ikusiko dugu. Seguruenik, batzuk boto gehiago izango dituzten arren, faktore asko aipatuko dira. Ariketa horren ondorioak hauek izan daitezke:
 - o Faktore asko lotuta daude: zaila da bat aukeratu eta bestea baztertzea.
 - o Zaila da faktore bakoitzak nolako eragina duen baloratzea (eta horregatik faktore asko agertzen dira bozketa egitean).

Hori erakutsi nahi dut?

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

16/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko bigarren mailakoekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da.

Ikasleek ikustea nahi dugu beraien hizkuntza-jokabideekin zer transmititzen duten.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzea eta ikustea norberak dituen jokabideekin zein mezu ematen dizkiegun gure inguruan daudenei.
- Eman nahi genituzkeen mezuak eta ematen ditugunak kontraesanean doazela ikustea, eta, pauso txikiak emanaz oso mezu egokiak eman ditzakegula jabetzea.

Lehengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: euskararen erabileraren inguruan hausnartzen jarraitu nahi dugu. Badakizue guk euskararen erabilera sustatu nahi dugula, baina hori zuen esku dago. Ez dugu inor epaitu nahi, bakoitzak egiten du bere bidea, baina ikustea nahi dugu gure jokabideek nolako eragina duten inguruan.
- *Zer adierazten dugu gure jokabideekin?* fitxa erabiliko dugu ikasleei galderak egiteko eta eztabaida sortzeko. Ondorioak arbelean egingo dugun taula batean idatziko ditugu. Eranskinetan dagoen taula batean ikusten da nora iritsi nahi genukeen.

Bigarren saioaren azalpena:

- Aurreko saioko ondorioetatik abiatuko gara: zein diren gure jokabideekin adierazten duguna.
- *Zer egin behar luke euskaldun perfektuak?* galderarekin jolastuko dugu. Taldeka banatuko ditugu (3-4 kidekoak) eta hau esango diegu. Herrian euskaldun perfektu bat bizi da: *Supereuskalduna*. Fitxa bat banatuko diegu eta bete egin behar dute. Ondoren emaitzak taldean aipatuko ditugu eta adosten saiatuko gara.
- Ondoren galdetuko diegu ea jokabide horiek gustatzen zaizkien: zer iruditzen zaie? egokia da hori? Ikusten dute norbait hori egiten? Nolako esfortzua eskatuko luke? Benetan hori egin behar al genuke?
- Azken galdera sortara pasako gara: baina guk transmititu nahi genukeen mezuaren artean eta gure jokabideekin transmititzen dugunaren artean kontraesana txikiagoa izateko... beharrezkoa al da euskaldun perfektua izatea? Edo nahikoa litzateke pauso batzuk

ebete

ematea? adibidez, gure burua eroso sentitu dezakegun lekuetan euskaraz eskatzen hastea. Edo lagunarteko harremanetan euskarari tarte handiagoa egitea. Edo... horrek balio al du? Aurreratzen al dugu zerbait?

- Ondorioa: Gure jokabideekin asko adierazten dugu nahi edo ez. Ez daukagu euskaldun perfektuak izan beharrik euskararekiko mezu egokia emateko. Pauso txikiekin asko egin dezakegu. Jokabidea ez da euskaldun perfektua izatea, gure proposamena da: euskara gero eta gehiago erabiltzeko pausoak ematea. Eta hori norberak egin dezake eta nahi duen moduan.

Zer adierazten dugu gure jokabideekin? Galderak

Euskara dakien hainbatekin gaztelaniaz egiten dut, ohitura horrela sortu da.

- Ohiturak ezin dira aldatu? Noren esku dago ohiturak aldatzea? Benetan zaila da edo nahi dugunean aldatzen ditugu ohiturak? Ohiturak aldatzea lortu izan dudanean (hizkuntzarekin edo beste zerbaitekin) nire buruarekin gustura sentitu izan al naiz?
- Euskara ez dakitenei zer transmititzen diegu? Euskarak ez duela garrantzirik guretzat? Euskaldunak izanda ere nahiago dugula gaztelania?
- Eta euskararen kontra daudenei? Beraiek arrazoia dutela? Euskarak ez duela benetako baliorik eta hobe litzakeela museoetarako gordetzea?
- Aldiz, euskaraz egiten badugu, zer transmititzen dugu? Euskara maitatzen dugula eta gainera gustuko dugula? Euskaldunok badugula hizkuntza bat bereizten gaituena? Hobeak edo txarragoak egin gabe, badugula berezigarri bat eta gauzak euskaraz egitea gustatzen zaigula?

Ezezagunekin, normalean, gaztelaniaz hasten naiz. Lekuren batean sartu eta euskaldunak direla iruditzen bazait, euskaraz hasten naiz.

- Horrela egiten al dugu? Zergatik ez gara euskaraz hasten? Jaso al dugu inoiz erantzun txarrik? Nork, non eta zenbat aldiz? Euskaraz ez dakitenek zer pentsatuko dute euskaldunez? Euskara maite dutela baina ez dutela behar adina maite? Euskaldunak euskara mantentzen ez badira saiatzen, euskara ez dakitenek ahalegina egin behar al lukete ikasteko eta erabiltzeko?
- Aldiz, euskara erabiltzen saiatuko bagina egoera horietan? Zer jasoko lukete euskara ez dakitenek? Guretzat euskara garrantzitsua dela eta mantendu nahi dugula? Batzuk euskara ez jakitearen gainetik dagoela gure erabilera? Ez dugula lotsarik eta konplexurik?
- Eta zer litzake guretzat euskaraz lotsarik gabe edozein lekutan hastea? Hori lortuko bagenu gure buruarekin harroi egongo al ginateke?

Zer adierazten dugu gure jokabideekin?

Euskara nahiko gertu dutenak					
Hizkuntza-jokabidea	Jokabidearen oinarria: beldurrak	Jokabidearen oinarria: aurreiritziak	Jokabidearekin transmititzen duguna	Euskara erabiliz transmitituko genukeena	Euskaraz egitea guretzat zer
Euskara dakien hainbatekin gaztelaniaz egiten dut, ohitura horrela sortu da.	Oso zaila da ohiturak aldatzea. Harremanean eragin negatiboa ere eduki dezake.	Ohiturak ezin dira aldatu, horrela sortu dira eta normala da beti horrela izatea. Berezkoak dira.	Euskarak ez du balio. Euskara dakitenak ere gaztelaniaz aritzen dira gusturago.	Euskaldun sentitzen direnak saiatzen dira euskara erabiltzen, nahiz eta testuinguruak ez lagundu.	Nire harremanetan gero eta euskara gehiago erabiliz gustura sentitzen naiz. Merezi du euskarari uko ez egiteak.
					Ohiturak aldatzea ez da erraza baina zaila da ez. Gure esku daude hainbat erabaki.
Lagunartean ari garenean gaztelania leku handia du, euskararekin baino erraztasuna handiagoa dugu (gazte hizkerari dagokionez behintzat)	Gaztelaniaz gazte hizkera aberatsa du, euskararena zaharkitua dago.	Hizkuntzak dira pobreak edo aberatsak.	Euskara hizkuntza pobrea da. Euskaraz aritzen direnek ere gaztelania behar dute ondo komunikatu ahal izateko.	Euskara hizkuntza aberatsa da. Egoera eta erregistro guztietarako balio du.	Euskara hizkuntza aberatsa da. Nire euskara hobetzen eta aberasten saiatzen naiz eta hori gustukoa dut.
Ezezagunekin, normalean, gaztelaniaz hasten naiz. Lekuren batean sartu eta euskaldunak direla iruditzen bazait, euskaraz hasten naiz.	Gaizki hartuko didate euskaraz hasten banaiz = erantzun txarra	Euskara gertuko harremanetarako egokia da, baina ez da egokia egoera ezezagunetarako. Guztiek dakigu gaztelania, baina euskara ez. Hobe egoera ezezagunetan gaztelaniaz egitea.	Ez du merezi euskara ikasteak, hizkuntza komuna beti gaztelania da.	Euskarak merezi du. Euskaraz bizi nahi dutenak asko dira.	Hainbat harreman berri euskaraz sortu ditut. Nik pausoak ematean lortu dut hori, bestela gaztelaniaz sortuko ziren.
					Harreman berriak euskaraz sortzeak gertutasuna ematen dit pertsona horiekin.

Supereuskalduna

Supereuskaldunak...

- Denda batera edo taberna batera sartzen denean zein hizkuntzatan eskatuko du?
- Dendariak gaztelaniaz erantzuten badio baina ulertu diola ohartzen bada zein hizkuntzatan jarraituko du?
- Ez badio ulertzen zer egingo du?
- Erantzun txar bat ematen badio zer egingo du?

Supereuskaldunak....

- Telebista ikusten duenean...
- Irratia entzuten duenean...
- Musika aukeratzeko duenean...

Supereuskaldunak...

- Euskaldunak diren lagunekin nola hitz egingo du?
- Euskara ikasten ari diren lagunekin nola hitz egingo du?
- Euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez diren lagunekin nola egingo du?

Supereuskaldunak...

- Kaletik doanean zerbait galdetu nahi badio ezezagun bati zein hizkuntzatan galdetuko dio?
- Ezezagun batek berari gaztelaniaz zerbait galdetzen badio zein hizkuntzatan erantzungo dio?

Beste ezaugarriren bat bururatzen zaizue supereuskaldunarentzat?

Paraxutistak

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

17/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko bigarren mailakoekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Kaleko hainbat egoeretan euskara gehiago erabili nahi izanez gero ditugu zailtasunak ikustea nahi dugu: beldurrak, zalantzak... Horrekin bi ondoriotara iritsi nahi dugu:

Euskara gehiago erabiltzea edo ez erabiltzea ez da besterik gabe sortutako ohitura bat: euskaraz egin nahi luketen askok ere ez dute pauso hori ematen.

Euskara gehiago erabiltzeko ahalegina jolas moduan ere egin daitekeela ikustea, edozein egoera jolas bihurtu dezakegula.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

ebete

Helburuak:

Ikasleen euskararen erabilera eragitera begira:

- Hizkuntza ohituren atzean aurreiritziak eta beldurrak ere egoten direla jabetzea: askotan ohiturak ez direla besterik gabe sortzen.
- Hainbat egoeretan erabilera ohiturak aldatzea ez dela erraza ikustea, baina jolas bihurtu ezkerro errazago egin daitekeela jabetzea.
- Ohiturak aldatzeko ahalegina egiten badugu, gero eta errazagoa ere izan daitekeela ere ikustea.

Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: euskaraz eta gaztelania dakigu gu guztiok. Harreman asko gaztelaniaz ditugu eta batzuk euskaraz. Askotan, harreman asko gaztelaniaz sortzen dira euskaraz edo gaztelaniaz izan daitezkeen jakin gabe.
- Euskaldun askok euskara gehiago erabili nahiko lukete (tartean zuetako hainbat). Baina, horrela izanda ere, kosta egiten da harremanak euskaraz sortzea eta gaztelaniara jotzen dugu.
- Irudikatu: euskaraz gehiago egin nahi duzue eta badakizue Herrian gero eta euskaldun gehiago daudela. Beraz, saiatu nahi duzue gero eta leku gehiagotan euskaraz egiten. Larunbat arratsalde batean arropa eroatera zoazte dendaz denda eta ondoren bi-hiru tabernetara zoazte pintxoak jatera: euskaraz eskatuko al zenukete? Leku guztietan? Zeren arabera erabakiko zenukete euskaraz hastea edo ez hastea? Horri buruz hitz egingo dugu. Seguruenik aipatuko dute dendariaren itxurari begiratuko diotela, musikari, euskaraz kartelik ba ote dagoen... Beraz, aurreiritziekin jokutzen dugu. Informazio horrekin ez dakigu euskaraz hasi gaitzkeen edo ez.
- Guk proposamen bat egin nahi diegu, nahi duenak frogatzeko: arratsalde batean gutxienez 10 lekutan sartu behar dute eta euskaraz zerbait eskatu.
- Erraza edo zaila izan daiteke ori? Nola ikusten dute?
- Proposamen osagarria: jolas bihurtuko dugu. Irudikatu gu guztiok soziologoak garela eta ikerketa bat egiten ari garela Europar Batasunerako. Jakin nahi dugu Herrian zenbat lekutan eskatu daitezkeen euskaraz. Beraz, eskatzera goazenean buruan ideia hori izan behar dugu. Errazagoa izan al daiteke horrela? Jolas moduan hartuta froga egitea errazagoa izan al daiteke?
- Boluntarioak eskatuko ditugu (binaka edo hironaka ere izan daiteke) eta aste pare batean froga egiteko eskatuko diegu.

Bigarren saioaren azalpena:

- Frogaren inguruan galdetuko diegu: zer moduz aritu dira? Lortu al dute? Zein izan dira emaitzak? Zerbaitek harritu al ditu?
- Sentsazioen inguruan galdetuko diegu: erraza izan da lekuetan sartu eta euskaraz eskatzea? Zein sentsazio zenituzten leku batera sartu aurretik? Zer pentsatu duzu edo hitz egin duzue zuen artean? Erantzun txarren beldurrik ba al zenuten? Eta jaso al duzue erantzun txarrik? ...
- Paraxutisten ideia aipatuko diegu: hegazkin batetik paraxutista moduan salto egitea erabakitzen badugu, hasieran ilusioa egiten du eta erabakiarekin pozik gaude. Ordua hurbildu ahala, emozioak aldatzen dira: beldurrak, zalantzak... Emozio horiek gehiago indartzen dira salto egin arte. Horen ondoren gure buruarekin pozik eta harro egongo gara. Horrela al da?
- *(Nahi izanez gero you tuben badira horrelako egoera bat irudikatzen duten bideoak. Soinurik gabe jarri dezakegu eta momentu bakoitzean pertsona hori zer ari den bizitzen hitz egin ikasleekin).*
- Maila berdinean inondik ere ez ditugu jarri nahi, baina euskararen erabilerarekin antzeko zerbait geratzen da:
 - o Nik gaur erabaki dezaket egoera batean edo beste batean bihar euskaraz egingo dudala eta pozik egon erabakiarekin.
 - o Momentua zenbat eta gehiago hurbildu eta zalantza gehiago izango ditut: gai izango al naiz? erantzun txar bat jasotzen badut? Zalantza horietako asko aurreiritzietan oinarritzen dira.
 - o Egiten badut nire buruarekin harro eta pozik sentituko naiz.
 - o Lagungarriak izan daitezke bi ideia hauek:
 - Jolas bihurtzeak laguntzen du: errazagoa da jola moduan hartzen badut eta ez oso gauza serio moduan, Guztia bihurtu dezakegu jolas.
 - Eremuak irabaztea: leku batzuetan euskaraz egitea lortzen badut, komeni da horietan behin baino gehiagotan saiatzea beti leku berrien bila ibili beharrean. Gero eta errazago eta seguruago sentituko naiz egoera horietan eta horrek lagunduko dit beste batzuetan frogatzen ere. Ideia hau paraxutistenarekin ere konparatu dezakegu: zenbat eta gehiagotan salto egin eta segurtasun eta lasaitasun handiagoa.
- Noski, froga gehiago egitera gonbidatuko ditugu. Institutuko paraxutistak izango dira.

Aurrera begira

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko
proiektua

18/18 modulua

Kokatzea

Batxilergoko bigarren mailakoekin hirugarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Institutuko ibilbidea amaitzear direnez, euskararen erabileraren eta jarreraren inguruan landutakoari ere amaiera eman behar zaio.

Aurrera begira euskara erabili dezaten hainbat zenbait ideia eskaintzea eta erreferenteen aurkezpenak erabiliko dira horretarako.

ebete hizkuntza-zerbitzuak

Helburuak:

- Datozen urteetan beraien ibilbidea zein izango den ikustea
- Hizkuntza aldetik nolako ibilbidea egin nahi luketen aztertzea
- Hainbat tresna eskaintzea
- Erreferenteak ere eskaintzea

Lehenengo saioaren azalpena:

- Ikasleen Batzordekoek dinamizatuko dute azken modulu hau.
- Gaia kokatuko dugu berriz ere: institutuaren helburuak, zer landu dugun hainbat saiotan (hausnarketak, ondorioak, erronkak...)
- Saio honetan zer landuko dugun azalduko diegu. Galdera bati erantzun nahi diogu: eta aurrera begira euskararekin zer?
- Galdera erantzuteko, hainbat egoera irudikatu ditugu:
 - Fitxa batean idatzita aurkeztu daitezke
 - Ikasleen batzordekoek antzeztu egin ditzakete
 - Bideo grabazioa izan daitezke: ikasleek grabatutako laburmetraiak edo bikoiztutako bideo zatiak.
- Egoerak eranskinetan proposatzen dira.
- Egoeretan irudikatzen denari buruz hitz egingo dugu denon artean (irakasleak saioa dinamizatzen lagundu beharko du): zer iruditzen zaigu? Hori nahi genuke? Zerbait egin dezakegu horrela izan dadin edo izan ez dadin?
- Amaieran, irakasleak edo ikasleen batzordekoek, modu honetako mezu bat argi bota behar dute: euskaraz egitea edo ez egitea ez dago beti gure esku, baina guk gero eta gehiago erabili dezakegu nahi baldin badugu. Gogoia dugunok horretan ahaleginduko gara.

Bigarren saioaren azalpena:

- Erreferenteak ekarriko ditugu: euskara elkartekoak, herriko euskalzaleak (musikariak...), eta abar.
- Ikasleen batzordekoek dinamizatuko dute saioa: aurkezpenak egin, norberaren asmoak kontatu, galderak egin erreferenteei...
- Erreferente hauek beraien ibilbidea kontatuko diete: autobiografia linguistikoa, gaur egungo jokabideak, lorpenak eta kontraesanak...
- Euskarari dagokionez zer lortu nahi duten herrian ere kontatuko diete, euskararen alde egin nahi badute zer aukera dituzten...

ebete

- Gutxieneko jokabideak proposatuko dizkiete:
 - Euskaraz gero eta gehiago egin nahi baduzu... Hasi euskaraz, mantendu euskara gertukoekin, irabazi egoerak eta harremanak euskararentzat, gustura aritu...
 - Eta jokabide aktiboak ez dituzuenon kasuan... errespetatu gure jokabidea eta zaindu hizkuntza: norbaitek euskaraz egiten badizue, euskaraz eroso egiteko aukera ikusten duzuenean...